

Herri giroko festak



UDA AMAITU DA...

BAINA EZ
ANTZIZAR KIROLDEGIAN

GIPUZKOAKO NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN V. AZOKA



IRAILAK 19
GOIZ ETA ARRATSALDEZ
ZERAIN

ZERAIN PARKE KULTURALA



- Herri Museoa, Larraondo Zerrategia, Aizpeako Meategiak, Kartzela.
- HARIZTI-ERDI ATERPETXEA
- MANDIOA DENDA: herriko produktuak, artisautza
- INFORMAZIO BULEGOA: urte osoan zabalik

Herriko Plaza z/g Tel: 943 801 505 Faxe: 943 801 606 E-mail: mandio@rebestb.es

Azoka bat baino gehiago

ANTOLATZEN DUTE:



ZERAIN
DEZAGUN
FUNDAZIOA

**Eskaintza berezia merkatari,
guraso eta abarri...**

Euskaraz irakurtzea...

Idatzi beharreko ohar, gutun eta abarreak euskaraz egin nahi badituzu...

Zure seme-alabek eskolan erabiltzen dituzten testuak ulertu nahi badituzu...

Euskarazko aldizkari, liburu eta egunkariak erraztasun guztiz irakurri nahi badituzu...

...eta ikas-prozesua adiskidetasun giroan burutu nahi baduzu...

Telebista eta irratia euskaraz ikus-entzuten ohitu goren bezala, euskarazko idatzizko produktuak irakurtzeko askotarri zailtasunak izaten ditugu. Euskaraz irakurtzeko laguntza teknikoa, bertatik, ez zaitugu falta.

...erraza da.
Animatzea besterik ez zaizu falta

**Euskaraz irakurtzen
trebatzeko 50
orduko ikastaro
berezia eta
Egunkariaren 3
hilabeteko
harpidetza**

**12.000 pezetaren
truke**

**Matrikulaldia
Irailean**

Egunkaria

**BEASAINGO
UDAL EUSKALTEGIA**

Loinazko San Martin plaza, Kultur Etxea, 1.a
☎ 943 80 52 54 **BEASAIN**

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierriarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
<http://www.ordizia.net>

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Agirder Mujika

Erredakzio Batzardea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastortza,
Eduardo Albizu, Iñaki Ugalde, Sa-
roi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga,
Mari Flor Mendizabal, Aitziber
Murua, Agurtzane Bikuña, Pako
Zubeldia, Zorion Insausti, Ekaitz
Goikoetxea eta Antonio Bolas-
tegi.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu inprimategia
(Zubillaga auzoa, Oñati).

Tirada: 7.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN

Nekazaritza ekologikoaren V. azoka Zerainen irailaren 19an

Igandean, irailaren 19an, ne-
kazaritza ekologikoaren V.
azoka izango da Zerainen,
Gipuzkoako Biolurrek eta
Zerain Dezagun Fundazioak
antolatutik. Zeraingo herriko
plazan egingo da azoka egun
osoan. Produktuak erosteko
aukera izatearekin batera, az-
kenaldian hain modan jarri
den nekazaritza ekologikoa
gertutik ezagutzeko aukera
izango da.

Denetarikoa produktu eko-
logikoak egongo dira salgai:
barazkiak, fruta, barazki
kontserbak, ogia, gazta, ez-
tia, ardoa, sagardoa, oiloa,
esnea, haragia, mermelada
eta gozoak, ontziraturako eli-
kagaiak, pintxo eta zumo
ekologikoak, sagar muz-
toa...

Egun guztian zehar taile-
rrak ere izango dira: ogi eta
gozogintza, tindaketa natura-
la, permakultura, bioeraikun-
tzarenak. Lixiba aintzinako
erara, artile langintza eta tin-
taketa, pintura, kale antzer-
kia, JoxAnton Artzeren poe-
sia emanaldia... 200 lagun-
tzako bazkari ekologikoa...
ere izango dira, Zerainek be-
rez eskaintzen dituen ohiko
ikusgarriekin batera Goierri-
ko artisautza eta Zeraingo
produktuak ere salgai izango
dira.

Nekazaritza ekologikoa

Lurraren emankortasuna eta
ekosistemaren oreka zain-
duz, abereen bizi baldintza
duinak ziurtatuz, hondakin
toxikorik sortu gabe eta on-
garri eta botika kimikorik
erabili gabe, gure osasunera-
ko elikagai garbi eta onura-
garriak sortzea da nekazari-
tza ekologikoaren helburua.
Patxi Montero, Biolurreko
ordezkariaren esanetan, ne-
kazaritza ekologikoa ez du
lur, ur eta airerik kutsatzen,
baserriarraren kanpotiko de-
pendentzia murrizten du, eli-
kagai 'biziak' sortzen ditu
eta, produkzio era sostenga-
rrian oinarritzen denez, base-
rriaren etorkizuna ziurtatzen
laguntzen du.


Eusko Jaurlaritzak 1996-
an arautu zuen Nekazaritza
Ekologikoa Euskal Autono-
mia Erkidegoan eta gaur
egun 55 baserriar edo enpre-
sa daude erregistroan. Pro-
dutu ekologikoen gama za-
baltzen ari da. Barazkiak dira
nagusi baina aurten produktu
berriak agertu dira: ahuntz
gazta, mermeladak, gozogi-
ntza eta sendabelarrak kasu.
Horiez gain, ohiko gainerako
produktuak sendotzen ari
dira eta ganadu, arrautza,
mahasti eta estensiboen alo-
rrak hazi egin dira aurten.

BOTA BERTSOA



Jon Agirre

Sanmigelak



**Doinua: haizak hi mutil
mainontzi.**

Goiz eresia tralara
ta ondoren mezetara
pailaso eta buru haundiak
umeen algara
konzentrazio bat bada
handikan afaritarra
eta gaueko hamabietan
guztiak lotara.

Iristean gau iluna
festa da datorkiguna
bizio eta pekatuetan
pasako deguna
edatearen astuna
lagun miñan maitasuna
San Mielek du gure ekintzen
erantzukizuna.

**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

TXANDAKA

Ordiziako feria

Irakurri berria dudan iritzi baten arabera, hiriak eka-
rri du jakintzaren aurrerabidea; hirian, hango eta he-
mengo jendeak elkarrekin bildu eta nahastu ohi dira
eta harreman hori izan bide da berrikuntzaren erna-
muina.

Ez dakit hori egia oso-osoa izango den, baina dudarik ez dut egiten Villa-
franca zaharrean feria egiten hasi zenean, gauza bat baino gehiago aldatuko
zela; eta aldaketa aldaketaren ondotik etorriko zela.

Azken urteotan ere ez da gutxi aldatu. Iraileko feria haundia dela eta Jesus
Mari Larizi egin dioten elkarriketa batean nabarmen ageri da: lehen gana-
dua ere izaten zela, ez ote dago orain arropa eta abarren saltzaile gehiegi, fe-
ria jaisten ari da...

Gaur, feria haundiaren eguna. Jendartean, hasierako pentsakizunari heldu
diot berriro. Urte batzuk -eta memoria- dituenak ikusiko du zenbateraino al-
datu diren gauzak, nolako jendea etortzen zen/etortzen den, zeintzuk etorriko
diren neguko asteazkenetan ere eta zeintzuk gaur bakarrik, Afrikatik etorri-
tako saltzaile beltz horrek zer iritziko dion...

Eta oraindik aldatuko direnak. Izango du bizirik feriak hemendik 25 urte-
ra, adibidez? Irailekoak bakarrik? Bizia nola aldatzen den jakin nahi duenak
badu nora jo, Ordiziako plazan ikusgai dago asteazkenero.

Anttonio Berasategi



Besteek esana



Jesus Mari Lariz

Ordiziako azoka berezien antolatzailea
DV-Bertan

"Niri iritzian, prentsak dauka erru osoa. Prentsak sentsazionalismoz jokutzen due-
la uste dut eta hurrengo eguneko titular
guztiak gazta erdiak subastan egindako
prezioarekin osatzen ditu. Hori gerta ez
dadin, neurri batzuk hartu beharrean gau-
de. Beno, egia esateko, neurri bakarra da-
go: prentsa-arduradunekin bilera egin eta
garbi eta argi azaldu subastaz gain gauza
ugari dagoela aipatzeko. Komunikabide-
ek jakin behar dute gazta lehiaketak adi-
nako garrantzia duten gauza asko daude-
la"

Joxe Manuel Zubizarreta

Goimeneko teknikaria

Gara

"Irailetik aurrera azokak hartuko duen
norabidea eta etorkizuna finkatzeko azter-
keta bat egin behar da inplikatu guztien
artean".



Alpe

MASTER

Elektragaiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21

☎ 943 16 07 06

ORMAIZTEGI



Barandiaran
ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

ERREZETA



Josune Uzkudun
Oteñe erretegia
Gaintza

USOAK SALTSAN

Osagaiak: tipula, porruak, azenarioak, baratxuriak, ardo txuria eta beltza, gatza, tomatea eta usoak.

Usoak lumatu eta garbitu. Gatza eman eta zartagian ondo gorritzen jarri.

Barazki guztiak xehetu eta lapiko batean jarri kolorea hartu arte. Ondoren ardoak bota.

Usoak bertan sartu eta urarekin estali. Usoak egiten direnean atera eta saltsa iragazkitik pasa.



Zorion Insausti
Oreka dietetika

Begiak, eskuak, azkazalak, aurpegia, bizkarra... ikusiz eta ikutuz, gorpuzaren organo guztiak aztertu daitezke. Hau da, pertsonaren osasun egoera azter daiteke. Berdin gertatzen da oinak ikutu eta ikusiz gero. Badago mapa bat, non oinean agertzen diren gorputzeko atal gehienak.

Adibidez: oin azpiaren txorkatila aldean, esteak isladatzen dira, oin azpiaren erdi-erdian giltzurdinak (eskubiko giltzurdina eskubiko hankan eta ezkerreko giltzurdina ezkerreko hankan), behatz lodietan burmuina eta buruko

AHOLKUA


Oinetan isladaturiko terapia

hezurra, bigarren eta hiru-garren behatz artean (behatz loditik hasita) begia,...

Horrela, pertsona batek tentsio altua badu, ziurrenik, oinak ikutuz bihotza eta giltzurdinak ondo ez daudela nabarmenduko da. Ondoren terapia honen bitartez tentsio altu hau tratatu beharko zaio. Hain zuzen, astean bi egunetan, oinetan masajea emanez, hanka bakoitzean, hogei minutuz, bihotza eta giltzurdinak isladatzen diren lekuetan.

Kasu honetan, beti ere, ona da sendabelarren bat (elorri zuria) eta janaria zaintzea (gatzik gabe). Astean behin tentsioa hartuz eta denbora pasatzen den neurrian, tentsioak behera egiten du.

Salbuespen gutxi batzuk izan ezik, edozein gaixotasun edo osasun arazo senda daiteke terapia honen bitartez.



ORDIZIAKO
UDALA

1999-2000 KIROL EKINTZAK

AEROBIC-a

Astelehen, asteazken eta ostiraletan, 9-10, 10-11, 15-16, 17-18, 18-19, 19-20 eta 20-21etan.

Astearte eta ostegunetan, 15-16, 19-20 eta 20-21etan.

MANTENU GIMNASIA LEUNA (3. adina)

Astelehen eta asteazkenetan 16-17etan.

Ostiraletan 12-13etan.

BALET-a

Astearte eta ostegunetan, 17-19etan.

Larunbatetan, 10-12etan.

EUSKAL DANTZAK

Larunbatetan, 12-13etan.

MANTENU GIMNASIA

Astelehen, asteazken eta ostiraletan, 19-20etan.

IGERIKETA

Astelehenetik ostiralera 9-10etan.

Astelehen, asteazken eta ostiraletan 20-21etan.

Astearte eta ostegunetan 20-21etan.

JUDO-a

Astelehen eta asteazkenetan 17-18 eta 18-19etan.



Polideportivo
MAJORI
Kirologia

☎ 943 88 93 33

ORDIZIA

☎ 943 88 93 53

ZINEA

BEASAIN:

Irailak 30, 'Gato negro, gato blanco' filmea, 21:00etan, Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

'Notting hill', Ostirala 17: 22:15; larunbata 18: 19:30 - 22:15; igandea 19: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 20: 19:30.

'Tarzan y la ciudad perdida', Igandea 16:45.

'La novena puerta', Ostirala 24: 22:15; larunbata 25: 19:30 - 22:15; igandea 26: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 27: 19:30.

MUSIKA

ALTZAGA:

Irailak 25, Erramun Martikorena, 22:30ean. Ondoren, Imuntzo eta Beloki trikitilari taldea.

BEASAIN:

Irailak 24, Cohiba Tropical ikuskizuna Porteria auzoan, 21:00etan.

'Gato negro, gato blanco'

Emir Kusturica
(Fra-Ale-Ser, 1998)

Bi familia ezberdinekoak diren hiru belaunaldi ezberdin konpromiso-ezkontza bat ospatzeko elkartuko dira. Ezkongaien onartzen ez duten ezkontza izaki, naturaren aurkako loturez dihardu filmeak. Gerra osteko testuinguru batean kokaturik, pelikula honetan ezin falta zitezkeen gai politiko-ekiko aipamen edo agerpenak, istorioarekin bat eginik.

BERTSOLARIAK

ALTZAGA:

Irailak 25, Amaia Agirre, Aitor Usandizaga, Jokin Uranga eta Alaitz Sarasola, 22:00etan.

Irailak 26, Mikel Mendizabal eta Iñaki Murua, 13:00etan.

BEASAIN:

Irailak 25, Gipuzkoako Herri arteko txapelketa: Goierri-Beasain / Toloxa. Artzai-Enean, 20:30ean.

LAZKAO:

Irailak 24, Lazkao Txikiren bat-bateko bertsoen antologia, Xabier Amurizaren eskutik, Lazkaomendiko Lartxai elkartearen, 20:30ean.

ORDIZIA:

Irailak 18, Gipuzkoako Herri arteko bertsolari txapelketa: Goierri-Ordizia, Goierri-Zaldibiaren aurka. Argi-Berri elkartearen, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Irailaren 19ra arte, Enrique Velazquezen pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

Irailaren 26ra arte, Jose Luis Agirre artistaren akuarelak, Usurbe Antzokian.

Irailaren zehar LP bilduma ezberdinen erakusketa, Zinema Tabernan.

ORDIZIA:

Irailaren 30era arte, Jexux Jauregiren eskultura erakusketa, Barrenan.

ZERAIN:

Irailaren 19ra arte, Joxe Mari Telleriaren pintura erakusketa, kultur etxean.

IKUSENTZUNEZKOAK

LAZKAO:

Irailak 28, Joxe Ramon Agirreren 'Bidaia neure barrenean zehar. Nepal' ikusentzunezkoa, 21:00etan, Maizpiden.

ZERAIN:

Irailak 17, Felipe Uriarteren 'Alegiazko herrialde bat' ikusentzunezkoa, Kultur etxean, 20:30ean.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Irailak 19, Besaidera.

Irailak 25, Hiru Errege Mahaiara.

Ordiziako mendizaleak:

Irailak 19, Besaidera.

Irailak 26, Asteasu-Ernio.

JOAKIN ZUBELDIA PINTURA-LANAK



☎ 943 180 246 ATAUN

ARRIETA

*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak



**LAZKAOKO
MAIZPIDE**
euskaltegia
barnetegia

1999/2000 IKASTURTEA

• IKASTAROAK URTE OSOAN:

- ✓ **BARNETEGIA:** Egunean 6 klase eta ekintza osagarriak
- ✓ **BESTE BATZUK:** 2 ordu egunean
4 ordu astean (larunbatetan)
Ikastaro berezituak

MAILA GUZTIAK

DEITU ETA EMAN IZENA!

☎ 943 88 92 31 - 943 88 92 32 Faxa: 943 88 92 32 e-posta: maizpide@euskalnet.net

HABEren dirulaguntzaz.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

Etxebizitza salgai Itsasondan. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainuarekin. 689650850.

Neska bat behar da Gas-teizen pisua osatzeko. 943180173.

Leioan pisua osatzeko neska bat behar da. 943889414.

Etxebizitza salgai Zaldibian, Urtesabel auzoan. 5.000.000 pezetan (negoziagarria). 943161072. Mari Tere.

3 lagun behar dira Leioan pisua osatzeko. 943-883665 - 943524820.

Pertsona euskaldun bat behar da Bilbon pisua osatzeko. 943187619. Ainhoa.

Etxebizitza salgai Zegaman, baratza eta txabolarekin. 943-886834.

Etxebizitza salgai Beasainen. Gela bat negoziara-ko prestatua. Ganbararekin. Egoera onean. 943883180.

Datorren ikasturtean Leioan pertsona bat behar da pisua osatzeko. Leire (943883470) - Ainara (943800180).

Bi pertsona behar dira Leioan pisua osatzeko. 943886904. Olatz.

Pertsona bat behar da Bilboko Alde zaharrean pi-sua osatzeko. Amagoia: 943885587; Maider: 943883880.

Neska bat behar da Deustun pisua osatzeko. 943887181 edo 943650077.

Salerosketak:

Pastor aleman arrazako txakurkumeak salgai, pedi-greearekin. 696057346.

'Comanche' kanpin gur-dia salgai. Prezio interesga-rria. 943885923.

Volkswagen Golf GTI 16 V, salgai. Extrekin. SS-AD. Asier. 943800384. Gaez deitu.

Cady motorra salgai, 20.000 pezetan. Egoera one-an. 943162510.

Pigini akordeoia (botoi-duna) eta zeharkako xirula (buggete) salgai. 943465724.

Euskal artzai txakurku-meak salgai. 943801467 - 617213340. Txema Lardiza-bal.

Kawasaki GPZ 400 mo-torra salgai. Egoera onean. 943731872 - 943731282.

Peugeot ST 50 zm³ko motorra salgai. 943887041-943160926.

Setter ingles txakurku-meak salgai. Aitak ehizean bikainak. 943683431.

Ford Fiesta autoa, go-rria, salgai. 943881938. Karlos. 20:00etatik aurrera deitu.

Ossa phantom 250 cm³ kroseko motorra salgai. 40.000 pezetan. 943731872 - 943731282.

Cocker hispaniel ingele-sa eskaintzen da arraza ho-betzeko, pedigree onekoa. 943886164.

Pastor Aleman arrazako txakurkumeak salgai, pedi-greearekin. 696057346 - 943853244.

Bestelakoak:

Ataun San Gregorioko Sutegi taberna alokatzen da. 943882278. Bezero ziurta-tua.

Eskusoinuak konpon-tzen dira, marka eta modelo guztiak. 943470001. 17:00etatik 19:00etara dei-tu, ostegunetan izan ezik.

Segura Futbol Taldeak entrenatzailea behar du. 943801092 (Iñaki Albisu).

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia) 943882934.

Irailak 18-19: Arriola (Plaza Nagusia, Ordizia) 943880628.

Irailak 25-26: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain) 943882934.

ORDIZIA AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta
☎ 943 88 72 76

IKASTEK AKADEMIA

1999-2000 IKASTURTEA
Goierriko akademia
integral bakarra
☎ 943 160 120
Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN
HASIERA: IRAILAK 6

Irailerako ikastaroak: udako nagiak astindu eta kurtsoa zihurtasunez hasteko

Lehen hezkuntza:	DBH / DBHO
✓ Ortografia ✓ Irakurketa, idazmena ✓ Aho adierazmena ✓ Kalkulua, matematika...	✓ Ortografia ✓ Testu komentaketak ✓ Idatzizko adierazmena ✓ Ikasketa teknikak...
Escola laguntza	Kontabilitatea: Eskuz, ordenagailuz
✓ Maila eta ario guztiak ✓ Lehen hezkuntza (6 urtetik aurrera) ✓ DBH, DBHO ✓ Goi mailako hezkuntza: -Unibertsitateak -Goi/erdi mailako ziklo formatiboak	✓ Kontabilitatea eskuz ✓ Contaplus ✓ Nominaplus ✓ Facturaplus ✓ Ordutegi zabalak, talde txikiak

HEZKUNTZAKO PROFESIONALAK GOIERRITARREN ZERBITZUAN



Presoak

Barne Ministerioak iragarri duenaren arabera 105 euskal preso Euskal Herrira ekarri edo hurbiltzeko asmoa dauka. Goierriko 9 preso daude tartean:

● **Josu Aierbe:** Ordiziarra. Alcazardik (599 km.ra) Salamancako Topasera (469 km.ra) eramango dute. 1998tik kanpoan egon beharko luke, zigorraren 3/4 betea duelako.

● **Jokin Aldanondo:** Beasaindarra. Burgostik (232 km.ra) Basaurira ekarriko dute. 1997az geroztik kalean egon beharko luke, zigorraren 3/4a beteta.

● **Txemi Arteaga:** Beasaindarra. Albacetetik (691 km.ra) Valentzia II. ra (594 km.ra) eramango dute. 1998tik kalean egon beharko luke, zigorraren 3/4 betea duelako.

● **Patxi Eskitxabel:** Legorretarra. Navalcarnerotik (497 km.ra) Asturiasko Villabonara (435 km.ra) eramatekoak dira. 1995. urtetik kalean egon beharko luke,

zigorraren 3/4a beteta.

● **Antton Garcia del Molino:** Ordiziarra. Castellotik (551 km.ra) Palencia-ko Dueñasera (318 km.ra). Gaixorik dago. 1996az geroztik kalean egon beharko luke, zigorraren 3/4a beteta.

● **Juan Carlos Ioldi:** Ataundarra. Murtziatik (801 km.ra) Santandergo El Due-sora (189 km.ra) eramango dute. 1998tik kalean egon beharko luke, zigorraren 3/4a beteta daukalako.

● **Asier Irastorza:** Ordiziarra. Caceres II-tik (679 km.ra) Basaurira ekarriko dute. Kalean egon beharko luke, aurtan, zigorraren 3/4a bete dituelako.

● **Andoni Urrestarazu:** Ordiziarra. Herreratik (602 km.ra) Lugo Bonxera (665 km.ra). Kalean egon beharko luke, aurtan, zigorraren 3/4a bete duelako.

● **Jokin Zubeldia:** Ordiziakoa. Jaen II.tik (804 km.ra) Zaragozara (268 km.ra). 1994. urtetik kalean egon beharko luke, zigorraren 3/4 beteta.

Epaiketa

Rufino eta Maria Jesus Arriaga anai-arreba ordiziar-rrak eta Xabier Irastorza beasaindarra epaitzen hastekoak ziren irailaren 14an, Parisko epaitegian, ETAko kide dire-lakoan.

Legazpiko Artzain eguna

Goierriko bi artzain omendu zituzten irailaren 5ean, Legazpiko Artzain Egunean: Segurako Madalenako Anttoni Oiarbide eta Idiazabal-go Urbizuko Ignazio Imaz.

AEK-ren zozketa

Goierriko AEK-k Ordiziako azoka bereziaren egunean egindako zozketako zenbaki saritua 418 izan zen. Legazpiar batek eraman zuen Goierriko produktuez osatutako lotea.

Pedro Garcia

Ordiziako mendizaleak 7.439 metroko Pobeda mendia igo zuen uztailaren 28an. Kazajistan errepublikan dago, Txinarekiko mugan. Oso tenperatura bajuak izan zituen igoeran eta izotzezko kubazuloetan lo egin behar izan zuen.

Ehiz postuak

Irailaren 12an Partzoneriako 46 ehiz postu atera ziren subastara Segurako Udaletxean. 10 ordainduenak:
Agiñaran 5, 1.044.400 pta.
Apota 13, 1.036.200 pta.
Apota 9, 1.032.222 pta.
Apota 11, 1022.222 pta.


Alzheimer eguna Ordizian, irailaren 19an

Irailaren 21ean Alzheimer gaixotasunaren Nazioarteko Eguna dela aitzakia hartuta, irailaren 18tik 21era bitartean, Gipuzkoako hainbat herritan, ekitaldiak izango dira. Nagusi-ena, Ordizian ospatuko da, irailaren 19an. Gaixoak eta sendiartekoak elkartzea, eta gizartea sentsibilizatzea ditu helburu Ordiziako festa honek.

Goizeko 10:30ean hasita, Ordiziako hainbat taldek osatutako egitaraua izango da: 10:30ean, trikitilariak; ondoren, dantzariak; 13:00etan musika banda plazan; 13:30ean, agintarien agurra; 14:00etan, Santa Ana abesbatza pilotalekuan; 14:30ean bazkaria pilotalekuan; bazkalondoren, Laguntasuna Errondaila eta dantzaldia; 18:00etan, jubilatuen etxean, Ordiziako antzerki taldearen antzez-lana.

Afagi, Gipuzkoako Alzheimer Senitartekoen Elkartek antolatu ditu ekitaldiak.

Iturgain 16, 916.066 pta.
Larrebil 18, 833.033 pta.
Agiñaran 1, 812.200 pta.
Agiñaran 3, 761.000 pta.
Larrebil 4, 753.180 pta.
Apota 15, 721.100 pta.



ondoeta

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Ordiziako azoka bereziko irabazleak

Jende kopuru handia bildu zen Ordizian, asteazkeneko azoka berezian. Eguraldia ere lagun izan zen eta giroa bero-beroa egon zen.

Lehiaketa ugari izan zen. Jarraian dituzue irabazleak:

Barazki lehiaketa: Antzuolako Tomas Larrañagak irabazi zuen.

Fruitu lehiaketa: Antzuolako Kontxi Izagirre izan zen irabazlea; bigarrena, Zaldibiako Jesus Irazustabarrena.

Asteazkeneko baserritarren lehiaketa: Barazki lehiaketan: Ezkio-Itsasoko Mikeli Lopetegik irabazi zuen; 2.a Lazkaoko M. Jesus Mujika; eta 3. Gabiriako Antonia Murgiondo.

Loreetan: Aramako Martin Urretabizkaiarentzat izan zen saria.

Eusko Oiloaren lehiaketa: Lezamako Asier Saenzek irabazi zituen sari guztiak.

Gazta txapelketa

Ordiziako Gazta txapelketa Arantza Segurola legazpiarrak irabazi bazuen ere, hurrengo 4 postuetan goierritarrak izan ziren nagusi.

Bigarrena Idiazabalgo Jesus Aranburu izan zen; hirugarrena Zegamako Jose Migel Asurmendi; laugarrena Zeraingo Juan Jose Aranburu; eta bosgarrena Zaldibiako Ignazio Irastorza. Guztiek ere keatutako gaztak aurkeztu zituzten.



Inazio Irastorza zaldibitarra, Juan Jose Aranburu zeraindarra, Joxe Migel Asurmendi zegamarra, Arantza Segurola eta Juan Jose Aranguren legazpiarrak eta Jesus Aranburu idiazabaldarra.

Aurreko urteetan irabazitako artzainen artean egiten den lehiaketan, lehenengo bi sariak hutsik gelditu ziren eta hirugarrena iazko irabazleari, Aiarako Jose Luis Perez de Albenizi eman zioten.

Irabazitako gazta erdiagatik 600.000 pezeta ordaindu zituen Donostiako SuperAmara supermerkatuak.

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:

☎ 943 88 03 15

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

AURRE ZITA

☎ 943 88 72 21

☎ 910 02 00 41

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*

NIKOLAS OSINALDE, GOIEKIKO TURISMO TEKNIKARIA:

"Iazkoarekin konparatuz laukoiztu egin da turisten joan-etorria Goierrin"

Aurtengo udan turista asko ikusteko aukera izan dugu Goierriko txoko ezberdinetan. Iazko datuekin alderatuz, aurten 4 aldiz turista gehiago izan dira, informazio bulegoetako datuak kontuan hartuz soilik. Mundu osotik etorri dira bisitariak, batez ere bikote gazteak, ume txikiekin. Goiekiko Nikolas Osinalde turismo teknikariak kontatu dizkigu igoeraren arrazoiak eta xehetasunak.

Uztaila eta abuztuan, Goierriko txoko ezberdinetan, makina bat jende ikusi ahal izan dugu argazkiak atereaz edo bideo-kamararekin irudiak hartuz. Mundu osotik etorritako turistak ibili dira Goierri ezagutzen. Euskal Herri osotik, Estatu Espainiarretik eta mundu zabaletik heldu dira turistak guganaino. Zehatz-mehatz esateko, Goierri bertatik, Donostia, Gasteiz, Bilbo, Atarrabia, Arrasate, Iruña eta Iparralde-tik; Madril, Bartzelona, Sevilla, Mallorca, Logroño, Salamanca, Zaragoza, Valentzia, Murtzia, Tarragona, Girona, Toledo eta Soriatik; eta Frantzia, Holanda, Ingalaterra, Gales, Argentina, Italia, Bel-



gika, Portugal, Nepal, Zelanda Berria eta Bulgariatik etorri dira. Bulgariak Madril duen enbaxadorea eta Bulgariako Ekonomia ministroa Goierrin izan dira.

Zerain, Lizarrusti, Beasain, Segura, Ordiziako informazio bulegoetatik eta Zumalakarregi museotik 7.764 lagun pasatu dira, Goierriko informazioa eskatuz. Euren kasa ibilitakoak ere gehitu behar zaizkio kopuru honi. Nikolas Osinalde Goiekiko turismo teknikariak emandako datuen arabera, iazko datuekin alderatuz gero, laukoiztu egin da turisten kopurua aurtengo udan.

Igoeraren arrazoiak

Hiru dira Osinalderen ustez, hainbesteko igoera honen arrazoiak: ETAre su-etena, turismo berdearen igoera eta urtean zehar turismo azoketan egindako promozio lana. "Irailetik aurrera konturatu ginen, ETArren su-etenenaren

ondoren, Estatuko jende asko zetorrela, Toledo, Valladolid, Zamora... aldekoa. Gabonetan ere horrela izan zen. Frantziatik ere jende asko etorri da. Orain dela bi urte udarako dena hartua zegoen eta Miguel Angel Blanco hil zutenean erreserba guztiak atzera bota ziren. Iaz igoera piska bat nabaritu izan zen, baina aurten asko nabaritu da. Oso gutxi ikusten ziren matrikulak ikusi izan dira aurten. Orokorra izan da Euskal Herrian igoera hori", dio Nikolasek.

Dena den, nekazari inguruko turismo honen igoera orokorra izan omen da Europa eta Espainian ere. "Europar eta Espainia mailan turismoa orokorrean igo egin da, baina batez ere turismo errurala igo da. Alemanian, Suizan... asko igo da turismoa. Alemaniako Oihan Beltzak indar handia hartu du".

Azkenik, urtean zehar Es-

tatu Espainiarreko turismo azoketan Goierri bere postutxo izatea ere nabaritu da. "Urtean zehar egon garen turismo azoketan promozioa egin dugun lekuetatik etorri da batez ere jendea. Aurten lau leku berrian egon gara: Zaragoza, Valentzia, Sevilla eta Valladolid".

Bikote gazteak

Batez ere bikote gazteak, ezkonduak edo ezkongabeak, etortzen dira Goierrira, euren seme-alabekin; askotan koardilan. Lasaitasunaren eta naturaren bila etortzen omen dira. Mendi irteerak egiten dituzte gehienbat.

Bataz beste 3 eta 5 gau bitartean egoten dira bertan. Donostiaren kasuan baino handiagoa da kopuru hori; Gipuzkoako hiriburuan 2,3 gau pasatzen baitituzte bataz beste. "Guk beti komentatu izan dugu Goierri ez dela denboraldi luzea egiteko lekurik egokiena. Zubietarako, Gabonetarako edo Aste Santurako da egokia. Aurtengo udan, dena den, italiar eta andaluz batzuk 12 egunera ere egon dira. Gero eta jende gehiago kokatzen da Goierrin, bertatik irteerak eginez".

Urte bukaera bitartean dauden zubiak eta jaiegunak aprobetxatuz, jendea dagoneko hasia da erreserbak egiten, Nikolasek aurreratu di-

DIETETIKA ETA ELIKADURA

- ✓ Kolesterolia, diabetes eta abar zaintzeko
- ✓ Pisua kontrolatzeko eta soberan dauzkagun kilo horiek galtzeko, inongo pastilarik edo botikarik gabe. Dietista batek egindako dieta osasuntsu eta orekatu baten bidez

ESKATU ORDUA

GORAIT - Andra Mari, 5 (Udaletxe parean)
☎ 943 88 87 62 BEASAIN

Auto EASO

ibabe industrialdea, 13
LAZKAO ☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA



"Canal Surrek kazetariak espeleologia egitera etorri dira eta dokumental bat prestatu dute, Goierri, abenturako kirola egiteko leku egoki bezala"

gunez. Bitartean azoka ezberdinetan promozioak egin ariko gara, Estatu Espainiarren eta Frantziarren. Ordiziako Euskal Astea dela eta, batez ere, asteazkeneko azokarako, kanpotar asko ziren etortzekoak.

Azpiegitura gabezia

Goierri duen arazorik handienetakoa, kanpotik datorren jende guztiari ostatu eman ezina da. Gero eta lotarako leku gehiago baldin badago ere, turismo teknikariaren ustez, gabezia handia dago arlo horretan. "Aurten Lizarrustiko aterpetxea, Gabiariako Ostatua, Itxune... gehiago izan ditugu eta oraindik ere ez da denontzako lekurik egon, jendea beste leku batzuetara bidali behar izan dugu", dio.

Turismoaren igoera honek, logela gehiago behar direla esaten zenean arrazoia zutela erakutsi du, Nikolas Osinalderen arabera. Urtean zehar hotelek enpresa ingu-

ruko jendearekin lan egiten dezaketela ikusten da, eta baita turistekin ere.

Datorren urteari begira badaude proiektuak Goierri, azpiegitura arazoari aurre egiteko: 2 nekazalturismo etxe berri, Zegamako Ostatuak logelak jarriko ditu, bi hotel proiektu daude Ordizian eta Lazkaon, Ataunen kanpin bat... "Azkeneko urte honetan ari dira proiektu berriak sortzen eta horrek esan nahi du gu egiten ari garen lana etekinak ematen ari dela".

Turistak mimitu

Hala ere, turista maitatu egin behar da Nikolas Osinaldek adierazi digunez. "Promozio aldetik diru asko gastatzen da, turista ekarri bai, baina gero ez dakigu zer egin berarekin, ez ditugu mimitzen. Jatetxeak itxitak, museoak itxita... egoten dira zubi edo jaiegun askotan. Goierriko jendea mentalizatu behar dugu. Bestetik, Goierriko ber-

Ondarearen jardunaldiak asteburuan Segura, Zegama eta Zerainen

Irailaren 18an eta 19an Ondarearen Jardunaldiak izango dira Segura, Zegama eta Zerainen, Europako Euskadi, Nafarroa, Akitania proiektuaren barruan. "Mugan dauden eskualdeak eta herriak aukeratu zituzten eta beraien kontura promozionatu ezin daitezkeen herri txikiei bultzada ematea dute helburu. Goierri mailan Zerain, Segura eta Zegama sartu dira. 'Herri Berezi' hauek azaltzen dira liburu batean, eta Interneten ere bai. Asteburuan, ondarearen jardunaldietan, herri bakoitzak daukana erakutsiko du. Herri txikiak promozionatu nahi dira eta jendea mentalizatu ere bai, zerbait ikusteko urrutira joan beharrik ez dagoelako". Ondarearen jardunaldietako egitaraua beheko lerroetan duzue:

Segura:

Kultur Etxeko turismo bulegoa asteburu osoan egongo da zabalik, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Bisita gidatuak arratsaldeko 6etan hasiko dira, turismo bulegotik abiatuta. Ama Jasokundearen Elizako bisita gidatuak dena den, larunbatean 12:00etan eta igandean 11:00etan izango dira. Zuhaitz eta zuhaixken erakusketa ere ikusgai egongo da Zurbano kaleko 12. zenbakian, 16:00etatik 17:00etara.

Zegama:

San Martin Eliza eta San Bartolome ermita bisitatzeko aukera izango da. San Martin Elizari dagokionean, larunbatean, 16:00etatik 19:00etara eta igandean 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. San Bartolome ermita, larunbat eta igandean, 16:00etatik 19:00etara.

Igande goizean, 11:00etatik 14:00etara, artisauak eta trikitilariak izango dira. Ekitaldi berezi bat ere prestatu dute zegamarrek: txondorra piztuko dute herriko plazan.

Zerain:

Ohi bezala, Mandioko informazio bulegoa irekita egongo da 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, eta bixita gidatuak ere izango dira. Igandean, egun guztian, Gipuzkoako Nekazaritza Biologikoaren V. Azoka izango da.

tako jendeak ere askotan ez daki Goierri zer daukagun".

Turisten beharrei erantzuteko prestaketak egiten hasiko dira bihar Zegaman, turismo moko gidak prestatuz. "Tu-

rismoa aurrera doan neurri berean, turismo inguruan dauden ekintza guztiak neurri berean zabaldu behar dira. Gida berriak ateratzea ere garrantzitsua da, Goierri zer den adierazteko gai izango direnak".

1999-2000 IKASTURTEA - MATRIKULA ZABALIK

IKASTAROAK	MATRIKULA EPEA	MAILAK
2, 3, 4 eta 5 ordu goizez, arratsaldeaz eta gauez	Urriaren 1erarte goizez eta arratsaldeaz	Euskalduntze Alfabetatze EGA

Udalak ikasleei matrikula subentzionatuko die.

GOIZTIRI  **IKASTURTE HASIERA: URRIAK 4 EUSKALTEGIA**

INFORMAZIO GEHIAGO ETA MATRIKULATZEKO

ORDIZIA: Santa Ana Ikastetxea ☎ 943 88 91 74

BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. ☎ 943 88 93 40

LAZKAO: Elosegi, 16 - 2. ☎ 943 88 91 74

Gipuzkoako herri arteko Bertsolari Txapelketa

Lehiak eta norgehiagokek, behinolako sustraiak dituzte euskal gizartean. Herri arteko kalapiten zirrarak gaitu kitzikatzen eta bertan eztimamitzen ditugu gure irrikak. Aurretiko zenbait saiakeren lorrazetik, udazkeneko haizabe epelak kinaturik, hosto nabarrak elkarrekin kateaturik, bertsolaritzak ere bere apustua heleraztea erabaki du, Gipuzkoako herri arteko bertsolari txapelketa alegia.

Herrika eta taldekako parte hartzeak, belaunaldi ezberdinetako ehundik gorako bertsolari elkarrekin korapilatzea du helburu, gero eta irmoagoa den bertso sokan, gipuzkoar oro jauzika jartzeko xedez.

Antolakuntza bera ere berria dugu, izan ere, betiereko ekimenetatik at zale-tua, gaijartzailetza, aurkezletza eta epailetza bezalako

lan eremuetan trebatu nahi da. Haatik, lehiari jardungo duten talde bakoitzak, bertsolariez gain aurkezlea, gaijartzailea eta epailea berekin beharko ditu. Hala-ber, taldearen herrian jokatutako beharreko kanporaketa saioaren ardura osoa, taldearen gain egongo da.

Gipuzkoako Herri arteko Bertsolari Txapelketa lau eskualdetan banatutako hogeita lau talde izango ditu, bakoitzeko sei. Lehen kanporaketak, eskualde barrukoak eta joan-etorrikoak izango dira, zozketaz elkarrekin lehiatzea egokitu zaien herrietan jokatuz. Bi saioetan punturik gehien erdietsitako taldea sailkatuko da hurrengo kanporaketarako. Bigarrenetik aurrera berriz, talde guztiak zozketa-zaku berean sartu eta kanporaketak saio bakarrean erabakiko dira, finala bera barne.

Goierri hiru talde

Goierritarrok ere, bertsoaren hatsa hitzean errotuz, irrikatsu eman diogu baiezta Herri arteko Bertsolari Txapelketari, Beasain, Or-



Goierri-Beasain Vs Toloxa

Bertsolariak:

Joxe Ramon Elortza
Aitor Sarriegi
Alaitz Alustiza
Haritz Zeberio
Ekaitz Goikoetxea

Alfontso Jimenez
Ibon Karrera
Bixente Gorostidi
Maidier Otxandorena
Eneritz Otamendi

Gaijartzaileak:

Pello Urretabizkaia
Juan Ramon Gerriko

Xabier Artola

Epaileak:

Iñaki Apalategi

Eleuterio Imaz 'Batxu'

Arduradunak:

Euxebio Igartzabal

Anjel Mari Peñagarikano

Beasaingo Artzai-Enea tabernan

Irailak 25, larunbata

Arratsaldeko 8,30etan

Sarrerak salgai: Artzai-Enea tabernan, Koiote tabernan, Basakana tabernan eta Arrano elkartearen Itzulerakoa urriaren 9an jokatuko da.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA



MUJIKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



dizia eta Zaldibiaren izenean, bost bertsolariko hiru talde gorpuztuz. Zorioneko zoriak hala nahita, Zaldibia eta Ordiziako taldeei elkarrekin lehiatzea egokitu zaien bitartean, Beasaingok, Toloxaren aurka neurtu beharko ditu indarrak.

Koadroetan dituzue bertso afari, data, leku, ordu eta partaideei dagozkien xehetasun guztiak.

Jokoa den jolasean, izanetik izenerako ostarkuaren zuzuan, goierritarrok, ahalleginean erroztatu ditugu gure barne erronkak. Umiltasunaren ahotsean, ahotsaren umiltasunean, 'Mila ehuni! Heldu hiok horri! Gozatu nahi duena saioetara etorri!

*Ekaitz Goikoetxea
'Mekola'*



Goierri-Ordizia vs Goierri-Zaldibia

Bertsolariak:

Juan Inazio Begiristain
Mikel Mendizabal
Xabier Narbarte
Joxe Munduate
Igor Eguren

Patxi Iraola
Iñaki Murua
Mikel Aranburu
Alaitz Sarasola
Iker Zubeldia

Gaijartzaileak:

Joxepa Madariaga
Felix Lardizabal

Joxe Antonio Elozegi
Saroï Jauregi

Epaileak:

Jon Aiestaran

Rufino Iraola

Arduradunak:

Joxe Mari Barandiaran J. M. Jauregi 'Altzo-Txiki'

Ordiziako Argi-Berri elkarteak

Irailak 18, larunbata Arratsaldeko 8etan
Sarrerak salgai: Oiangui tabernan

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 943 889390 BEASAIN

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO



IBAI-ONDO

Altzariak neurria

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g BEASAIN




MUJIK



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

URBITARTE

sagardotegia



- Txotxetik irekita
- Eguerdi eta gauetan irekita
- Eguerdietan hobe aurrez deitzea

Erreserba telefonoa:

943 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN

...zure independentzia.



Asteazkenetan **UNI**
Unibertsitatea, informatika...

Ostegunetan **barkatu**
Gazteentzako gehigarria...


Ostiraletan **Mir**
Mendi eta abentura zaleentzat...

Larunbatetan **begia**
Literatura, artea...

Igandeetan **K2**
Erreportaiak eta elkarrizketak...

Haurrentzako jolasak **Xingola**
denborapasak...

Egunkaria



ORDIZIA

Gipuzkoako herri arteko bertsolari txapelketa martxan jartzekotan den honetan Ordiziako taldeari Zaldibikoaren aurka aritzea egokitu zaio. Ordiziako taldea honakook osatzen dute: Joxe Munduate, Mikel Mendizabal, Xabier Narbarte, Juan Inazio Begiristain eta Igor Eguren bertsoak kantatzeaz arduratuko dira; Joxe Mari Barandiaran da taldeko arduraduna; gaiak jartzen Joxepa Madariaga eta Felix Lardizabal arituko dira eta epailea Jon Aiestaran izango da.

Lehen kanporaketa bi saiotan erabakiko da. Joanekoa bihar bertan jokatu da, larunbata, Bustuntzako Argi Berri Elkartearen aurketik txartelak eskuratu dituztenek afaria egingo dute eta ondoren bi taldeak nor baino nor arituko dira. Itzulikoa, Zaldibian jokatu dena, urriaren 2an izango da. Eran 3 bertsolari beste 3ren aurka arituko direla.

Udala martxan

Udaleko batzorde ezberdinen buruak ondorengoak dira. Hirigintza, obrak eta ingurugiroa Jose Arizmendi, zerbitzuak Jesus Mari Aldaz, sustapen eta garapena Agustín Linazasoro, gazteria eta kirolak Mikel Iturrioz, hezkuntza eta euskara Julen Agirre, kultura eta jaialdiak Bittor Milo eta gizarte ongizatea Guzman Vazquez. Orain arte zinegotzi izandako Jesus Mari Larizi urte bukaerarte kontratua egin dio udalak epe horretan burutuko diren jaialdi eta aparteko pe-riak aurrera eramateko.

Sukaldari lehiaketa

Euskal jailetako lehiaketarik gehienak asteazkeneko periberezia izan baziren ere (ikus sarituak 9. orrian), izan

Hasteko, Ordizia Zaldibikoaren aurka



Euskal astearren barruan, irailaren 7an egin zen Goierriko odolki onenaren lehiaketa. Argazkian agertzen diren Pedro Jose Erauskin eta Kontxi Otamendik aurkeztutako odolkiak izan zen nagusi. Bustuntza auzoan du bikote honek harategia eta urte askotan egindako lanen emaitza izan da sari hau. Bigarren eta hirugarren azken bi urteetako irabazleen, Ignacio Mujika eta Iñaki Campos, odolkiak sailkatu ziren.

ziren beste batzuk ere. Elkar-teen arteko sukaldari lehiaketa da horietako bat eta bertan Txapel Gorriko ordezkariak izan ziren nagusi (Kexus Sanz eta José Miguel Calvo), Larrun Arri (Iñaki Aierbe eta Jose Ignacio Eskisabel) eta Mendizaleak-ekoen aurretik (Iñaki Urbiola eta Manolo Perez de Arenaza).

Kimetz

Kimetz Emakumeen Elkartek ekitaldi ugari antolatu du urritik abendura bitartean.

Psikologia ikastaroa: Pertsonarteak komunikazioak. Urriaren 4an hasita, astelehenean, 15:30etik 17:30era, Barrenan.

'Aintzinako Zibilizazioen Arte' ikastaroa: Mesopotamia, Egipto, Grezia eta Erromako arteak.

Grafologia ikastaroa: Errubrikaren azterketa.

Literatur solasaldia: Hilean liburu bat irakurri eta hilean behin solasaldia izango da Luisa Etxenike idazlearekin, Barrenan.

Eskulan tailerra: Pintura ikastaroa: urriaren 7an hasita, ostegunez, 15:00etatik 17:00etara, Barrenan. Harizko ikastaroa: urriaren 7an hasita, ostegunez, 17:30etik

19:30era, Barrenan.

Gozogintza ikastaroa: Abenduan hasiko da ikastaroa eta txokolatea nola landu behar den erakutsiko da: bonboiak, irudiak...

Jubilatuak elkarteko ekintzak

Jubilatu eta pentsionistentzat aisialdian ondo pasatzeko eta ikasten jarraitzeko aukera dago herrian bertan.

Irailak 20, astelehena: 'Ekintzetan hasteko garaia da (ongizatea eta partaide-tza), hitzaldia, 18:00etan, jubilatuen etxean.

Irailak 27, astelehena: 'Adimena lantzeko egin beharreko buru ariketa' hitzaldia eta 'Memoria entrenamendua' ikastaroaren aurkezpina. 18:30ean, jubilatuen etxean.

Urriak 4, astearte: 'Osa-suna orokortasunez ulertzen' hitzaldia eta Osaunari buruzko hitzaldi zikloaren aurkezpina, 18:00etan, jubilatuen etxean.

Hitzaldi guztiak Ignazio Mendigurennek emango ditu.

Beste hainbat ikastaro ere antolatu da: **Irailean**, gimnasia, abesbatza, eskulak eta adimena lantzeko ikastaroak. **Urrian**, antzerkia, masaia

eta lasaitzea. **Azaroan**, eskulanak. Informazio gehiagorako telefonoa: 943805610 edo 943888288.

Emen izena AEK-n

Ordiziako AEK matrikulazio kanpainan dabil buru-belarri, herritarrek euskaldundu eta alfabetatzeko nahian. Matrikulatzeko epea hilaren amaieran amaituko da eta ikasturteari urriaren 4an emango zaio hasiera. Matrikulatu edo informazio gehiagoko 943-889174 telefono zenbakian edota Egutera Bidean dagoen Santa Ana ikastetxean. Udaletxeak ikasleei matrikula subentzionatuko die.

Bazkide berrien bila

OKE Futboleko Zuzendari-tza Batzorde berriak bazkideak lortzeko kanpaina martxan jarrita du. Bazkide bakoitzak 7.000 pta.ko kuota ordaindu beharko du urtean, honekin Ordizian edozein neurketa ikusteko aukera izanaz. Bazkide egiteko nahikoa da datuak Ordiziako 87 posta kutxatilara bidaltzea (izen-abizenak, telefonoa, helbidea, banketxeak kontu zenbakia) edota Zuzendari-tzako edozeini ematea.

Zuzenketa

VIII. Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketako helduen mailan Beasaingo Ekaitz Goikoetxearen lana izan zela saritua adierazi genizuen aurreko alean. Datu hori okerraren. Helduen mailako txapelduna Zarauzko Nikolas Zendoia izan zen 'Astoa' lanarekin. Bigarrena Zaldibiko Rufino Iraola 'San Franziskoren liburutik' lanarekin eta hirugarrena Ordiziako Alaitz Sarasola 'Zuretzako' lanarekin.

Aitor Calvillo

SEGURA

122 ikasle eskolan

Pasa den ikasturtean baino 7 haur gehiago izango dira aurtengoan. 1999-2000 ikasturtea irailaren 8an hasita, goizez ari dira, 22an goizez eta arratsaldeaz hasteko.

Aurten 2 urte beteko dituztenak, iaz ez bezala, gainerakoekin batera hasi dira. 16 dira guztira, 9 neska eta 7 mutil. Momentuz 3 taldetan banatuak daude eta bakoitzak orduerditxo ematen du eskolan. Hilaren amaiera aldera ordubetez hastekoak dira eta gelara egokitu ahala elkartuko dituzte goizez eta arratsaldeaz.

Beheko eskolan 2tik 5 urte artekoak, 50 guztira. Goiko eskolan 6tik 11 bitartekoak, 72 guztira. 122 ikasleen artean, 7 zeraindarrak eta 5 mutiloarrak dira.

Irakasleak 14, horietatik 3 herritarrek. Zuzendaria Josu Hijarrubia da.

Musika eskola

Aste honetan hasi dute 40ren bat herritarrek San Joanak arte iraungo duen ikasturtea. Eskola orduz kanpo, astean zehar hezkuntza musikala eta instrumentuak (trikitixa, panderoa, akordeoia, gitarra, pianoa, klarinetea eta saxofoia) ikasteko aukera izango da. Informazio gehiago Tobera Musika Eskolan (943801570).

Txistua

Solfeo eta txistuko ikasturtean hasteko direnak, 6 urtetik gorakoak, urriaren 1ean, iluntzeko 7etan dira Joxe Mari Telleriaren elkartekoak Kultur etxean. Ordutegiak eta taldeak zehaztuko dira. Klaseak urriaren 4an hasiko dira, astean 3 egunez.

IV. girotze Barnetegia

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erdal giroko haurrek, aste honetan hasita San Joanak arte,

Udal batzordeetan parte hartzeko gonbitea

Datorren astean hasiko dira biltzen legealdi berriko udal batzordeak. Bertan izateko irailaren 17rako eman behar da izena. Hala ere, bileretan jarraipena ziurtatuz gero, edozein herritarrek parte hartu ahal izango du.

Aurreko legealdiaren aldearatu, Garapen ekonomikoaren (industrialdea, turismoa eta nekazaritza) batzordea sortu da. Lehengo Hezkuntza eta Kirola orain batzorde baina izango dira. Hezkuntzaren barne euskara eta gaztedia egongo dira.

Batzorde eta arduren banaketa: Urbanismoa, Ogasuna eta Kirolak (Luli Telleria, EH), Garapen ekonomikoa eta Kultura (Rafael Gerriko, EH), Zerbitzuak eta Partzoneria (Aitzol Telleria, EH), Ongizatea eta Hezkuntza-Euskara-Gaztedia (Jaione Telleria, EH).

EA eta EAJkoek lana eta partehartzea ziurtatu dute. EHkoek EAKoei Kirola, Kultura eta Partzoneria eskaini zieten, baina batzorde banaketarekin ados ez zeudela eta, ez dute ardurarik hartu. EAJ-

koek, berriz, hasieratik ez zuten ardurarik nahi izan.

Batzordeen zeregina, diagnosiak, proposamenak, aporazioak, eztabaidak... lantzea izango da. Nobedade modura, akta jasoko du batzordeburuak. Erabakiak plenoetan hartuko dira, hilaren azkeneko ostegunetan. Bertan edozein herritarrek parte har dezakeenez, 48 ordu lehenago jakinaraziko dira gai ordenak, denda, taberna edo paneletan jarriko diren iragarikien bidez.

txandaka, astebeteko barnetegiak izango dituzte Aldundiak Seguran duen aterpetxean.

Helburua, D ereduko 8tik 11 urte bitarteko erdal giroko ikasleei eskolatik kanpo euskaraz bizitzeko aukera ematea da. Guztira 1.000ren bat ikasle eta 80ren bat irakasle pasako dira.

Ehiz postuak

Irailaren 12an Partzoneriako 46 ehiz postu atera ziren subastara Segurako Udaletxean. Bertan, ehiztariek 18.990.730 pezeta utzi zituzten. 10 ordainduenak zein izan diren 7. orrian duzue zehatz.

Gaur, irailak 17, subastatik kanpo herritarrei tokatu zaizkien postuak banatuko dira Txoritegi elkartearen, iluntzeko 7,30etatik 8,30etara. Oilagor txartela ere bertan atera ahal izango da.

Jubilatuen eguna

Jubilatuen elkarteak udalarekin batera ondorengo egitaraua antolatu du irailaren 19rako: **11:50ean:** Arboladian bildu eta dantzari eta txistularien artean parrokira. **12:00etan:** Meza Nagusia. **13:30ean:** Autobusez eta kotxez irteera. **14:00etan:** Bazkaria Zumarragako Etxeberri jatetxean. Bazkalondoren opariak eta musika. Gaixo eta

ezinduei opariak bidaliko zaizkie etxera.

Banakako herrien proiektua

Euskal Herriko eta Akitaniako 25 herriren ezaugarriak azalduko dituen gida proiektuaren barne, zenbait aktibitate antolatu dira irailaren 18 eta 19rako. Seguran, **Turismo Bulegoa** irekita egongo da goizez 11etatik 2etara eta arratsaldeaz 4etatik 7etara. **Bixita gidatuak** herrian zehar, arratsaldeko 6etan zapatuan eta jaietan; Eliza 12:00etan zapatuan eta 11:00etan jaietan. **Zuhaitz eta zuhaixken erakusketa** Martxeliño Elorzak Iparra.-Hegoarako antolatutakoa. Zurbano kaleko 12an, arratsaldeko 4etatik 5etara zapatu eta jaietan.

Labur-labur

● **Pintura erakusketa:** Ze-raingo kultur astearren barne, Joxe Mari Telleriaren 11 koadro daude ikusgai Kultur etxean. Gaia: musika eta pintura. 1986etik 1999arteko lanak.

● **Lourdesera bidaiak:** Lourdeserako egunpasa urriaren 3an izango da. Izen ematea eta informazioa Jermanenen.


● **Udal liburutegia egunero zabalik:** Uztailera arte astean 3 egunetan irekitzen zen. Miren Aranburu da arduraduna.

● **Soinketa ikastaroak:** Pasa den astean hasi ziren 2 talde Baratze pilotalekuan. Informazio gehiago Udaletxean.

Joseba Telleria

Kiloko tomateak

Kiloa pisatzen duen tomate ale jaso dute Mendotze baserriko baratzean pasa den astean; Xabier Alustiza, bertako semeak eskutian duena. Atsedean elkartean dago ikusgai.



ZERAIN

Larunbata ezkerotik kultur astea ospatzen ari da, hainbat hitzaldi eta ekintza ezberdinekin. Aurtengoan aipamen berezia merezi duen ekintza antzerkia da. Izan ere, herriko lau gaztek prestatu eta zuzendutako antzerki lana antzeztu zuten bertako 17 haurrek, 3tik 13 urte bitartekoek. Ikuskizun hau ikustera hainbat herritar hurbildu zen, baita ondoren egin zen afari herrikoira ere.

Astea amaitzeko bi ekintza geratzen dira: Irailak 17, ostiralean izango den diapositiba emanaldia, Felipe Uriarteren eskutik: 'Alegiazko herrialde bat' ikusentzunezkoa.

Bestalde, irailaren 19an, goiz eta arratsaldean izango den Gipuzkoako nekazaritza

Kultur astearen amaiera asteburuan



ekologikoaren V. azoka. Eguenean zehar hainbat produktu ekologiko erosteko eta ikuskizun ezberdinak ikusteko aukera izango da. Egun horretako egitaraua 3. orrialdean duzue.

Irailaren 11z geroztik ere,

aste osoan zehar, Joxe Mari Telleria margolariaren pintura erakusketa irekita dago kultur etxean, museoaren ordutegi berean; hau da, astelehenetik ostiralera goizez 10:30etik 13:30era eta arratsaldean 15:30etik 18:30era eta larun-

Jexux Jauregiren eskultura San Blasen

Irailaren 9an Jexux Jauregi eskulturgilearen 'Ilargiaren idea' izeneko eskultura jarri zen San Blas basilikaren ondoko zelaian. Hurrengo ilargi betean, hau da, irailaren 25eko gauerdian, inauguratuko da, herri giroan egingo den festa batekin. Eskultura hau egiteko erabili den materiala eta material hauen prestakuntza lanak Gabiriako Juan Lasa tailerrak eman ditu.

bat eta igandean goizez, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Mari Flor Mendizabal

ZEGAMA

Bihar larunbata, irailak 18, Zegaman bi ekitaldi garrantzitsu izango ditugu. Bata 'Santiago Bidea Goierrin eta Euskal Herrian' ikastaroaren hasiera izango da, goizeko 10etan, Kultur etxean. Ikastaroari hasiera Udal ordezkari batek emango dio bertako parte hartzaileei ongi-etorria emanaz eta ondoren ikastaroan Maria Angeles Gurrutxagaren eskutik murgilduko gara.

Bigarren ekitaldi nagusia, 'Ondarearen jardunaldiak' izango da.

Ondarearen jardunaldiak

Euskadi-Akitania programaren barnean Zegaman zenbait ekitaldi antolatu dira Segura eta Zerainekin batera. Larunbat goizean: Udaletxeko arkupeetan bertako produktuen erakusketatxo bat eta zenbait baserriko tresna zahar jarriko dira.

Aurrera begira, tresna zaharren erakusketa orokorrako bat egitea ere badago Udal nahiz Kultur etxeko batzordeen asmotan eta beraz guztion laguntza eta borondatea behar da Zegamako tresna zaharren katalogo bat

burutu nahi badugu. Erakusketa hau larunbat eta igandean zehar ikusgai izango da udaletxeko arkupeetan. Larunbat arratsaldean herriko bi artisau ere lanean arituko dira: Joxe Albizuk artilearekin haria egingo du eta Joxe Berasategi sega pikatzen ari tuko da.

Igande eguerdiartean haria egiten, sega pikatzen, Angel Arantza saski egiten eta Jabier Arrieta egurra lantzen ari tuko dira guztien ikusgai. Jabier Arrietak eta Angel Arantzak ilunabarrerarte egingo dute beraien lana.

Bi egun hauetan futbol zelai zaharrean txondarra sutan izango dugu, bertan Juan Apaolaza Urruztikoa eta Patxi Otaegi Tellerikoa arituko direlarik eta San Martin parroikia eta San Bartolome eliza ikusgai izango dira interesdun guztientzat, meza ordutan izan ezik.

Kilometroak 99

Urriaren 3an Oreretan izango den Kilometroak 99ko autobuserako izen ematea irailaren 30a baino lehen egin behar da. Prezioa: 600 pezeta.

Edurne Albizu

Asteburu bete-beten



AUSGEGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



ZALDIBIA

Katalunyan Diada eguna zela eta, joan zen asteburuan kultur ekitaldi batean parte hartu zuten zaldibitar batzuek Tarragonako Torredembarra herrian. Hamazortzi dantzari, trikitilariak, txalapartariak, abeslariak, txistularia eta beste laguntzaile batzuek osatutako 35 laguneko taldea (tartean 6 ordiziarrak) ostira-lean abiatu ziren Zaldibiatik eta igandean itzuli zen.

Ekitaldi nagusia larunbat iluntzean izan zen. Bertan dantzak ikusi eta alkatearen hitzalditxo entzun ondoren, euskal kulturaren erakustaldia etorri zen. Eta euskaldunen ondoren, dantzari italiarrak.

Torredembarra izan direnek esan dutenez, oso harre-
ra ona egin diete han, eta as-
ko gustatu omen zaizkie eus-
kal abesti, dantza eta instru-
mentuak.

Euskal presoak ere gogo-
an izan zituzten zaldibita-
rrek. Ekitaldiak iraun zuen
bitartean, 'Euskal Presoak
Euskal Herrira' zioen oihal
bat egon zen taula gainean.
Hark zer esan nahi ote zuen
galdetu zuenik ere izan omen
zen, 'Giraldillaren' berri izan
ez duen norbait edo...

Udal batzordeak

Legealdi berrirako Udal bat-
zordeen antolaketa eginda
dago jada. Udala Euskal Her-
ritarrok taldeko 9 zinegotziz
ordezkaturik dago eta hauek
dira eraturitako batzordeak eta
haien ordezkariak. Hirigin-
tza, Joxe Joakin Zubeldia
'Zarra' eta Joseba Murua
'Goniñe'; Kultura, Kirola eta
Euskara, Agustin Mujika
'Takolo', Maddalen Hernan-
dez eta Iñaki Gurrutxaga; Gi-
zarte Ongizate eta Zerbi-
tzuak, Ramon Sukia eta Us-
taritz Ormaetxea; Ingurugi-



Jubilatuaren bazkaria

Igande honetan, irailak 19, Jubilatuen eguna ospatuko da. Herriko zaharren lagunarteko bazkaria izango da egun honetako ardatz nagusia. Eguraldiak laguntzen badu plazan izango da bazkaria eta eguraldi txarra badago antzokian.

Bazkariko antolaketaren ardura, urtero bezala, Zubi-buru elkarteak hartu du. Bazkaria Oiangutik ekartzen dute eta be-
raiek arduratzen dira jendea zerbitzatzeaz. Bazkarirako txarte-
lak Beti-Gazte elkarteak daude salgai.

Bazkal ondorenean, herriko pertsona zaharrenei opariak emango zaizkie. Aurtengoan ere, aurreko urteetako pertsona berberak jasoko dute herritarren omenaldi xumea. Eulali Garmendia da 98 urterekin herriko pertsonarik zaharrena, eta aldi berean emakumerik zaharrena. Gizonezkoen artean Miel Antonio Sukia dugu edadetuena 97 urterekin. Senar-emazte za-
harrenen artean Auntxita Teleiko Frantzisko Irastortza eta Eleuteria Sukia dira zaharrenak, bakoitza 93na urterekin. Be-
jondeizuela!

Festa alaitzen jarraitzeko Jesus Telleria eta Xabier Urreta-
bizkaia trikitilariak arituko dira jendea aspertu arte.

roa Oroitz Etxabe eta Aitzol Jauregi; Kontuetako batzor-
de berezia, Ogasuna eta per-
tsonala, Joxe Joakin Zubel-
dia 'Zarra' eta Oroitz Etxa-
be.

Udalak parte hartzen duen
bestelako erakundeetan on-
doko ordezkariak izango di-
ra: San Jose egoitzan, Usta-
ritz Ormaetxea; Sasieta Man-
komunitatean, Ramon Sukia;
Goimen-en, Oroitz Etxabe;
Enirio-Aralar Mankomunita-
tean, Aitzol Jauregi; Goierri-
ko Herrien Ekintza Funda-
zioan, Iñaki Gurrutxaga;
Ikaslan Fundazioan, Madda-

len Hernandez; Tolosako hil-
tegian, Oroitz Etxabe; Ara-
larko Parke Naturalaren pa-
tronatuan, Aitzol Jauregi;
Euskal Fondoan, Ramon Su-
kia; Lardizabal Herri Esko-
lan, Agustin Mujika 'Tako-
lo'; Goiekin, Oroitz Etxabe;
Ueman, Maddalen Hernan-
dez; Eudiman, Oroitz Etxabe
eta azkenik Aralarreko Pa-
tronatuan, Aitzol Jauregi.

Lerro hauen bidez Zaldi-
biako udaleko ordezkariak
deia luzatu nahi dizute he-
rritar guztiei irekiak diren
udal batzordeetan parte har-
tzeko.

Soinketa

1999/2000 ikasturterako
soinketa ordutegia prestatuta
dago jada. Irailaren 20an
emango zaio hasiera ikasta-
roari eta Kultur-etxean eman
behar da izena. Ordutegiak:

Aerobic-a hiru ordutegi
ezberdinetan emango da: as-
tearte, asteazken eta ostira-
tan, goizeko 9:15etik
10:15era; arratsaldeko
7:15etik 8:15era; eta 8:15etik
9:15era. Hilean 2.400 pezeta
ordaindu beharko dira.

Slow-a, astearte, ostegun
eta ostiraletan izango da
arratsaldeko 8:15etik
9:15era. Hileko 2.400 pezeta
ordaindu behar dira.

Mantenimendua, astearte
eta ostegunetan, arratsalde-
ko 2:45etik 3:45era. Hilean
1.300 pezeta.

Hirugarren adineko man-
tenimendua, astearte eta osti-
raletan, goizeko 10:15etik
11:15era. Dohanik.

Festetako langileak

Herriko festetan sortzen den
hainbat laneri aurre egiteko
Udalak langileak kontratatu-
ko ditu. Lan hauek, besteak
beste, kalea garbitzeko eta
trafikoa bideratzeko izango
dira. Interesatu guztiok izena
eman dezakezue Udaletxean,
irailaren 20a baino lehen.

Motoen matrikulazioa

1999-7-27a baino lehenago
eskuraturitako ziklomotoreak
matrikulatu egin behar dira
datorren urteko irailaren 28a
baino lehen. Trafiko zuzen-
daritzak Zaldibiako Udale-
txera bidali du horretarako
behar den dokumentazioa.
Beraz, ziklomotoeen jabeak
pasa zaituzte Udaletxetik
matrikulazioa tramitatzera.

*Saroi Jauregi
Iñaki Gurrutxaga*

ORMAIZTEGI

San Migel festa ospakizunak

Amaitu berriak ditugu udako oporrak eta beronek adierazten duen bezala, gertuago ditugu San Migeletako festa ospakizunak. Berauek irailaren 25 eta 26an izango dira. Urtero ohi bezala aurten ere egitarau zabala dugu ospakizun hauetaz gozatzeko.

Irailak 25, larunbata:

Goizean zehar haurrentzako jokoak izango dira.

12:00etan: VIII. toka txapelketa herrikoia, herriko enparantzan.

16:00etan: VIII. San Migel mus txapelketa herriko enparantzan.

18:00etan: Txokolate jana herriko enparantzan.

20:00etan: Trikitilarien kalejira herrian zehar.

20:30ean: Afari herrikoia. Eguraldi ona eginez gero herriko enparantzan, txarra

bada, Zubipe kiroldegian. Menua: odolki eta txorixo pintxoak, marisko krema erredondoa saltsan, postrea, kafea eta edariak. Prezioa, berriz, 18 urte artekoentzako 1.100 pezetakoa da eta helduentzako 1.600 pezetakoa. Txartelak irailaren 23ra bitartean herriko tabernetan eros daitezke.

Irailak 26, igandea:

11:00etan: Mountain bike

proba herriko zirkuitoan zehar. Irteera herriko enparantzatik egingo da. Proban parte hartzeko izen emateak udaletxean egin beharko dira. Proba amaitu ondoren sari-banaketa egingo da Itxune erretegiaren ondoan.

13:30ean: Herriko trikitilarien kalejira izango da.

Aitziber Murua

GAINTZA

San Miel jaietako egitaraua prest!

San Miel egunean, irailaren 29an, festa eguna izango bada ere, hurrengo asteburuan, urriaren 1etik 3ra bitartean ospatuko dira ekitaldirik gehienak. Udalak prestatutako egitaraua duzue hurrengo lerroetan.

Irailak 29, asteazkena:

San Miel eguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

14:00etan: Herri bazkaria. Larrañaga eta Lazkano bertsolariekin.

18:00etan: Toka txapelketa herritarrentzat.

Ondoren, trikitixa goizalderarte, Epelde eta Larrañagarekin.

Urriak 1, ostirala:

21:00etan: Txekor jana.

Ondoren, trikitixa goizalderarte: Sakanako trikitixa.

Urriak 2, larunbata:

15:00etan: Plater tiraketa herritarrentzat.

17:00etan: Haur jolasak eta Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak.

18:30ean: Mondeju eta ardoa nahi duenarentzat.



22:00etan: Trikitixa goizalderarte: Iker Allur eta bere taldea.

Urriak 3, igandea:

Azken eguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren, Jubilatuentzat haiaiketako.

12:15ean: XVI. Txirrindulari igoera trikitixak alaiturik.

17:00etan: Zaldibiako dantzari taldea.

18:00etan: Herri-kirolak: Mindegia eta Peñagarikano.

20:00etan: Trikitixa goizalderarte: Ansorregi taldea.



GAINTZAKO UDALA



Jai zoriontsuak herritarroi!

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
 ☎ 943 88 51 68
 ORMAIZTEGI



F.M. 89.2

EGUNEKO
 24 ORDUAK
 ZUREKIN

OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabe
 Larraitz bidea GAINZA ☎ 943 88 98 48



Zatoz Sanmigeletan Gaintzara bertako mondejuak probatzera

IDIAZABAL

Idiazabalgo jubilatuek, igande honetan, irailak 19, izango dute beraien eguna. Herrian 65 urtetik gorako 380 lagun daude. Horiei guztiei eta beraien senar edo emazteei gonbitea egin die Guraso Elkarteak iganderako. Eguerdiko 12.30etan meza izango da eta ondoren bazkaria. Arratsaldeko 2etan abiatuko dira ohiko lekutik autobusak Olaberriako Zaldiak jatetxera joateko.

Bazkarian eta bazkalondan hainbat opari banatuko dira eta ezustekoren bat izango dela ere jakinarazi dute antolatzaileek. Urtero bezala, ezinduta daudelako baz-

Jubilatuen eguna igandean

Idiazabal - Euskalduna B

Partidu hori izango da Arizkorreta futbol zelaian Idiazabal Kirol Elkarteak jokatu den lehendabizikoa. Igandean, irailak 19, hasiko du denboraldia Gazteen 2. mailako taldeak Euskaldunaren aurkako partidarekin. Talde hau zuzentzen Jose Mari Martin arituko da. Beste taldeek datorren asteburuan ekingo diote lanari. Guztira lau talde arituko dira 1999-2000 denboraldian Idiazabalen.

Erregional 2. mailako taldea Juan Manuel Etxabek entrenatuko du eta irailaren 26an jokatu dute lehendabiziko norgehiagoka, Urnieta taldea hartuko dute etxean. Asier Santanak zuzendutako kadeteen taldeak ere irailaren 26an ekingo dio txapelketari, Arizkorretan, Aitzgorriren aurka. Haurren mailako taldeak Joakin Dorronsoro zuzendari duela Hernanin hasiko du denboraldia datorren igandean.

karira joan ezin dutenei etxera oparia eramango diete.

Guraso Elkarteak igande-

ko jaia antolatzeke, Udalak, Kutxak, Euskadiko Kutxak, Ampok eta Jasok emandako laguntza eskertu du.

Batzorde irekiak

Udalak, legealdi berrirako eratu diren batzordeetan parte hartzeko deia egin die herritarrei. Talde politikoek osatutako zortzi batzordeetan edozein herritarrek parte hartu dezake. Izena emateko epea irailaren 24an bukatuko da. Hauek dira batzordeak: Hirigintza eta Obrak, Mendia eta Baserriak, Kultura eta Euskara, Gizarte ongizate, Kirola, Zerbitzuak, Gazta eta Kontu, hazienda eta pertsonal Batzordea.

Xabier Urteaga

MUTILOA



Lierniko Txirrindulari froga, Lierni gaina igotzen ari zela.

Bi asteburutan zehar ospatu ditugu aurtengo festetan, giro ederra izan da nagusi eta hona hemen jaien barruan izandako ospakizun nabarmenenen laburpena:

● **Lierniko Txirrindulari froga:** Irailaren 5ean korritu zen gazte mailako froga hau.

Frogak bi zati izan zituen. Lehenengoan inguruko herrietan zehar lasterketa izan zen eta Xabier Muriel izan zen irabazle. Bigarren zatia erlojuaren kontrako proba izan zen eta irabazlea berriz, Mikel Aizpurua. Bi frogetako denbora kontuan izanda

txapeldun, Xabier Muriel geratu zen.

● **Tiro Pitxoiko kontuak:** Irailaren 12an berriz, Aitz-Buru Elkarteak antolatuta XVIII. Pitxoi tiraketa izan zen Lierni gainean. Tiratzaile kopurua 274koa izan zen eta guztien artetik Luis Etxebarri Agirre bergararra izan zen irabazlea.

Norbaitek tiraketan zehar, saskiaren zozketarako zenbakiak erosi bazituen esan, zenbaki saritua 317a izan zela. Zenbaki horren jabea ordea, igandean bertan agertu zen eta bera Xabier Zugasti errezildarra izan zen.

● **Auzo afaria:** Iluntze parte ederra pasatzeko aukera

izan genuen, irailaren 11n, larunbatean, Patxi Erretegian egin zen afarira hurbildu ginenok. Ostolaza eta Andonegi trikitilariak alaitu zuten afari ondorena eta egia esan behar bada ondo asko alaitu ere.

● **Tonbolako sari bereziko zenbakia** 130 izan zen.

Arantzazurako erromesaldia

Irailaren 4an eta 5ean eguraldia lagun, mendiz larunbategi irtenda nahiz igandean bertan Arantzazura hurbildu zirenek, egun bikaina pasatzeko aukera izan zuten.

Iñaki Ugalde

GERRIKO
taberna

Plater konbinatuak
Afariak

Elosegi 16 ☎ 943 889943 LAZKAO

ANSOATEGI
HERRIKOA

Falta direnak gogoan!

☎ 943 88 68 52 ☎ Elosegi. 15
LAZKAO



SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAKO
Haurtzaindegia
Ludoteka



Zabalik urte osoan zehar:

✗ 7:00etatik 20:00etara: Haurtzaindegia
✗ 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era jantokia (haur eskolarizatuak)
✗ 16:30etik 20:00etara: Haurtzaindegi-Ludoteka
☎ 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ☎

LAZKAO

Esparruko erromeria, Sanmielak ...

Esparruko erromeria

Irailako hirugarren igandean, irailaren 19an, Esparruko erromeria izango da urtero bezala.

Irailaren 18an, larunbata, arratsaldeko 7etan, bu-ruhaundiekin eta Antzar Gazteak txarangarekin kale-jira egingo da Lazkaon barrrena.

Irailaren 19an, igandea, Esparruko erromeria: Goizeko 9etan, Esparrura irteera plazatik. 11,30etan, ikurrinari omenaldia Esparruko ton-torrean. Ondoren haur-jolasak izango dira eta segidan helduxeagoentzat, herri kirolak. Eguerdia aldera, bazkari herrikoa izango da pagadian, trikitixa eta bertsolariak girotuta. Arratsaldeko 6ak aldera, ikurrina kendu eta herrirantz jeitsiera.

Irailak 24, ostirala:

20:30ean: Lazkao Txiki bat-bateko sorgina (Lazkao Txikiren bat-bateko bertsoen antologia) Xabier Amurizaren eskutik, Lazkaomendiko Lartxai elkartearen. 21:30ean afaria.

Irailak 25, larunbata:

18:00etan: Sagardo dastake-

Mermelada ikastaroa

Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteak antolatuta, mermelada ikastaroa egingo da irailaren 20tik 23ra arratsaldeko 7etatik 8etara Gerriko Txokoan.

Ikastaroa, 500 pezetaren ordainetan eman ahal izango da, baina horretarako, gaur irailak 17 duzue izena emateko azken eguna. Gerriko Liburudenda eman beharko da izena, edo bestela, telefono honetara deituz, 943-886500.

ta herriko elkarteek banatuta. Talogileak eta trikitilariak ere izango dira.

Irailak 26, igandea: Dantzari Txiki eguna:

11:30ean: Dantza taldeei har-rrera plazan.

13:00etan: Alardea, plazan.

17:00etan: Dantza taldeen dantza emanaldia, plazan.

Irailak 28, asteartea:

21:00etan: Joxe Ramon Agirreren 'Bidaia neure barrerean zehar. Nepal' ikusentzunezkoa, Maizpide eus-kaltegian.

Gaur haurtzaindegia inaugurazioa

Irailaren 1az geroztik haurren zaintzaz arduratzen da San Benito ikastola, lan honetarako kontratu duen enpresa bati esker. Inaugurazio ofiziala, gaur, irailak 17, arratsaldeko 7,30etan izango da. Mikelarreko Ikastolaren eraikinean dago kokatua haurtzaindegia.

Zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditu beronek: 0-2/3 urte bi-tarteko haurrentzako haurtzaindegi zerbitzua, 7:00etatik 20:00etara. 2-9/10 urte bitarteko ikasleei zuzenduriko zaintza eta jantoki zerbitzua, Ikastolako ordutegiko kanpo.

Ludoteka

Arratsaldetan 4:30etik 20:00etara, begirale batek gidatuko duen ludoteka ere egongo da. Merienda bertan emango zaie. Egunero jolas eta ekintza ezberdinak antolatzeaz gain, 'Ikas-tetxe-txoko' bat prestatu da, 18:30etik 19:30era, haurrek bertan etxekolanak egin ditzaten.

Ludotekarekin hasteko, atzo eta gaur, 17:00etatik 18:00etara, jostailu zaharrak bilduko dituzte eta bertan parte hartzen duten haurrekin, haurtzaindegian bertan, festa txiki bat antolatuko da. Informazio gehiagorako telefonoa: 943-880800 / 626918076.

Irailak 29, asteazkena: Samiel eguna:

12:00etan: Samiel parrokiaren meza.

12:30etan: Pelota partiduak.

14:00etan: Jubilatuen baz-karia Ataungo Bittorren.

16:00etan: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, plazan.

18:30ean: Kultur etxearen inaugurazioa.

18:30ean: Buruhandiak An-

tzar Gazteak txistulariekin.

19:30ean: Akelarre musika taldea.

20:30ean: Herri afaria pelotaleku zaharrean.

22:30ean: Akelarre.

Irailaren 24tik urriaren 2ra, 'Jazzeko hogeita hamar nagusiak' Joxe Mari Alemanen pintura erakusketa, Kultur etxeko erakusketa aretoan.

Urko Irastortza

MANUEL-ENEA
TABERNA
☎ 943 88 20 29
Elosegi, 5 LAZKAO

DORRAO
TABERNA
San Mlel zoriontsuak!
LAZKAO

ZELATA
TABERNA
Uhaitz, 1 LAZKAO


GERRIKO
S. A.
liburudenda

- ✓ Liburuak
- ✓ Jostailu didaktikoak
- ✓ Eskola materiala
- ✓ Bulego materiala
- ✓ Fax zerbitzua

Elosegi, 16 ☎ 943 88 65 00 Faxe: 943 88 79 71 LAZKAO

ESTANKO
TABERNA
Sanmiel zoriontsuka denoi!
Elosegi, 17 LAZKAO

ATAUN

Aurreko zenbakian aipatu genuenez hasiera eman berri diote J.M. Barandiaraneko ikasleek ikasturteari. Aurten goan gainera, Lazkaon itxi den "eskola nazionaletik" etorritako 22 haur hasi direnez, gorantz egin du kopuruak. Orain 104 ikasle daude. Irakasleen plantilak ere jasan du berrikuntzarik, horrela Itziar Juaristi arduratuko da musika emateaz, Klara Lasa pedagogia terapeutikoaz, 3. Mailakoen irakasle Itziar Hergedas izango da eta 6. Mailakoena Iñaki Arregi. Aurreko zuzendaritza taldeak ere "erreleboa" pasatu berri die kide berriei. Zuzendaria Begoña Munduate izango da, Kontxi Urteaga ikasketak burua eta idazkari lanetan Maria Jesus Alvarez arituko da. Horrezaz gain, aurtengo kurtsoetik aurrera lau urtetatik hasiko dira ingelesa irakasten. Irakaslea Tere Dorronso-ro izango da.

Kirol eta kultur jarduerak

Aurten ere aukera zabala eskaintzen digu Santi Etxeberrriak zuzentzen duen Kultura eta Kirol sailak. Zuen gorpuztaren osasunaz eta sasoiaren arduratuta zaudetenoi zuzenduta, honako kirol ekintzak antolatu dira: **aerobic**, urrian

Irailarekin batera haize berriak



Liburutegi berria martxan

Joxe Arratibelen azken liburua apal huts batean jarritz, sinbolikoki, liburutegi berria inauguratu zenetik joanak dira hilabete batzu. Denbora horretan liburutegiaren arduradunak ez dira gelditi egon eta lan horren emaitza da aste honetan, Zelaieta etxeen azpietan, ireki den liburutegi berria. 7000 liburu horitua, bi ordenadore ere ezarri dira edonoren erabilerarako. Egunero, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 5etatik 7etara egongo da zabalik eta larunbatetan, goizez, 10etatik 12etara. Irakurzale zaretenontzat, eta ez zaretenontzat irakurtzen hasteko aukera paregabea, beraz.

hasi eta astean bi egunetan, iluntzeko 8etatik 9etara.

Mantenimenduko soinketa, urrian hasita astean hiru egunetan. Gimnasioa, berriz, astelehenetik larunbatera irekita egongo da. Jarduera hauetakoren batean parte hartzea interesa duzuenok edota informazio zabalagoa jaso nahi duzuenok Auzoeta Udal Kiroldegiko arduradunarengana zuzendu zaitezte lehenbailehen. Telefono zenbakia 943-18.03.84 da.

Izen emateko epea irailaren 25ean amaitzen da.

Kultur jarduerari dagokienean, Udalak eta J.M.B eskolako Guraso Elkartek **Musika** eta **Ingelesko** ikastaroak antolatu ditu. Musika ikastaroa 6 urtetik gorako haurrei zuzendua dago baina bada lekuri helduentzat ere. Kasu honetan Udaletxeko bulegora jo behar da.

Astean bi egunetan eman go dira. Izen emateko interesik bazenu Udaletxera edota

Eskolara zuzen zaitez irailaren 25a baino lehen..

Era berean **dantza taldeak** ere aurrera darrai. 6 urtetik gorakoa bazara eta euskal dantzak ikasi nahian bazabil-tza, haxe duzu aukera.

Mediku kontsulta berriak

Aste honetatik aurrera, Udalak San Gregorio eta San Martinen egokitu dituen kontsulta berrietan egingo digu harrera medikuak. San Gregorion eskola zahar berrituetan; liburutegi berriaren ondoan, Zelaieta etxeen azpikaldean, San Martinen. Gainera, joan den irailaren 6tik aurrera kontsulta ordua aurrez 943-88.87.55 telefonora deituz hartu behar dugu. Egun berean nahi izanez gero, goizeko 8,30etatik 9,30etara bitartean deitu behar da. Larrialdietarako eta ondorengo egunetako ordua hartzeko berriz, goizeko 8etatik arratsaldeko 5etara bitartean dei liteke. Erne ibili beharko dugu beraz, ohitu artean behintzat.

Labur-labur

Joan den astean hil zen Etxabeltzeko Manuela Barandiaran. 92 urte zituen. Doluminak sendiari.

Agurtzane Bikuña

OLABERRIA

Udalak hainbat ikastaro antolatu du urritik aurrera. Urriaren 1a baino lehenago eman behar da izena. Ikastaro hauek burutzeko ezinbestekoa izango da gutxienez 8 laguneko taldea osatzeta. Momentuz zehaztutako ikastaroak hauek dira:

● Eskulanak

Dekorazioa (koadroak, irudien pintaketa...), eta hari lanak (gantxiloa, bolilloak...) landuko dira, 30 orduko ikastaroan, ostegunetan, 14:30etik 17:30era. Iñaxi Urreaga izango da irakaslea. Urriaren 14an hasiko da.

● Altzarien berriztapena

Urriaren 6an hasiko da, Ama-Lur etxeko eskutik. 30 orduko ikastaroa izango da, asteazkenetan, 17:00etatik 20:00etara.

● Egur taila

Ainara Aldanondok eman-

go du 40 orduko ikastaroa, astelehen eta asteartetan 18:30etik 21:00etara. Urriaren 18an hasiko da ikastaroa.

● Euskal dantzak

Fandangoa eta Arin-arina erakutsiko dira, 20 orduko ikastaroan, astean bi egunez.

ALTZAGA

San Migel jaia datorren astean

Irailak 25, larunbata:

17:00etan: Haur jolasak. Go-
rritiren saioa.

20:00etan: Txupinazoa.

Ondoren herriko pilotalekuan
zikiro jana :Amaia Agirre,
Aitor Usandizaga, Jokin
Uranga eta Alaitz Sarasola
bertsolari gazteak. Erra-
mun Martikorena abesla-
ria. **Imuntzo eta Beloki** tri-
kitilari taldea.

3:00etan: Langostino Jatea,
Artea Elkarteak.

Irailak 26, igandea:

10:00etan: Goiz eresia Alege-
ko Txistularien eskutik.

11:00etan: Meza Nagusia.

18:00etan: Aizkolari saioa:
Iñaki Azurmendi; Xabier
Orbegozo **Harria**; Xabier
Aranbarri, **Elorriaga**; Aitor
Esnaola. Lana: 10 kana er-
diko ebakitzea.

19:00etan: Sagardo eta txis-
torra **dastaketa**: Aulia (Le-
gorreta); **Begiristain** (Ikaz-
tegieta); **Urbitarre** (Ataun);
Olagi (Altzaga).

19:30ean: Lazkanoiturburu
trikitilari bikotea.

Eliza eraberritua

Irailaren 26an, goizeko 11etan, Jose Maria
Setien Gotzaiak zuzenduko du eliza berri-
tuen bedeinkapen meza. Sei urte luzetako be-
rrikuntza obren ondoren amaitu dira. Hasiera
batean, elizaren egoera kezkagarriaren ondo-
rioz, erakunde desberdinei honen berri adie-
razi eta egin beharreko berrikuntzei berehala
ekinarazteko jesiak egin ziren. 1995 urtean,
ikerketak geoteknikoa egin zen, eraikuntzaren
ormetan zartatuen eta zimentazioaren egoera
jakiteko.

Hurrengo urtean, elizako hiru ormetan
eginiko, bai barrualdetik bai kanpoaldetik,
mikropilotajearen bidez zimenduak sendotu
ziren. Eraikuntzako teilatu guztia kendu eta
gaur gaurko erakoa den egur laminatuz egi-
koa jarri zitzaion. Koruko arkua eraberritu
zen. Elizako obrak direla eta kapila (garai ba-
teko sakristia) hondatu zen eta hau ere kon-
pondu zen, teilatu, zoru eta argi indar sare be-
rriak jarri, aldi berean, eraikin berri bat egin
zen, gaur egungo sakristia bere bainu gela eta
guzti. Eliz atariko portikoa, lehen elizako teil-
atuan ziren egurrak hartuz eraberritu zen.

1997-1998an elizan lehen zegone zorua
kendu, aislamendu egokia eman eta berria ja-
rri zen, aldare inguruan marmola, eta lehengo
sepultura lekuetan pizarra berria jarri, barru-
kaldeko egitura aldatzen da harriko gradak
mugituz. Atariko portikoko zoru berria ere

egiten zen. 1999an barrukaldeko ormak pin-
tazen dira, argi indar sare berria jartzen da,
korurako eskailera berria eta zenbait altzari
(sakristiko armairua, bankuak, apaiz eserle-
kua,...) berritzen dira, berriak ere eskuratzen
dira (altare-mahaia, anboia,...).

XVI. mendekoa den erretablea plateresko-
ak, bere erdikaldean elizako zaintzailea den
San Migelen irudia du. Goikaldean Jaungoi-
ko-Jaunaren erliebe bat eta franziskotar itxu-
rako harmarri bat daude. Erretaularen gaine-
rantzeko laukietan ebangelariak eta Gargano
mendian San Migel agertu zeneko irudikapen-
ak agertzen dira. San Lorenzoren (ziur asko
garai bateko erretablea baten testigantza), ko-
kapena aldatu egin da, Doloetako-ama zego-
en tokian jartzen bait da. Erdiko erretablearen
bi albotan zeuden irudi-manikiak kendu dira,
arte garrantzi handiena duen erretablea nagu-
siaren haunditasuna gehiago nabarmentzeko.

Lan guzti hauek burutzeko 55.210.598
peztan inbertitu dira, sarrerak berriz
55.075.472 peztan izan direlarik, herritarroi
bidali zaizkizuen eskutitzetan zehazten den
bezala. Egun zenbait lan ordaindu gabe eta
beste batzuk egin gabe daude oraindik.

Altzagako parrokoa den Jesus Javier Do-
minguez jaunak eskerrak eman nahi die era-
kunde desberdinei eman duten laguntzagatik
eta dirulaguntza eman edo auzolanean aritu
diren herritarrei.

Irailak 29, asteazkena, San Migel eguna:

12:00etan: Meza Nagusia.

13:00etan: Trikitilariak,

Goiatz eta Sara. Bertsola-
riak, Mikel Mendizabal eta
Iñaki Murua.

14:00etan: Herri bazkaria.

19:00etan: Herri mailako To-
ka Txapelketa.

22:00etan: Trikitixa.

ALTZAGARATE JATETXEA

San Migel zoriontsuak denoi!

- Eguneroko bazkariak
- Bataio, jaunartze, ezkontza...
- Udazken-negu sasoian babarrunak,
bere lagungarri guztiekin

☎ 943 88 41 96

ALTZAGA

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

☎ 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



ALTZAGAKO UDALA

*Herritar guztiei eta egun hauetan
bintatuko gaituzunei feta alai eta
zoriontsuak opa dizkizuet.*

Alkateak



Orain eguerdian ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

BEASAIN

Oraindik ere jaietan

Abuztuko oporren itzulera jaiekin hasi zen herrian, eta iraila bukatzera badoa ere, oraindik ere jaiekin jarraitzen dugu.

● Bideluzeko jaia

Zenbait urtean Bideluzeko jairik ez bada izan, aurren, berreskuratzeko asmotan dira bertako bizilagunak eta tabernariak. Irailaren 24tik 26ra bitartean ospatuko dituzte.

Irailaren 24an, 17:30ean hasita buruhandiak eta txaranga ibiliko dira auzoan eta gauean, 23:00etan, dantzaldia izango da.

Irailaren 25ean, 16:00etan jubilatuentzako toka eta igel joakoak izango dira Bideluzen eta Zaldizurrietan; 18:30ean Saralegi anaien harrijasotze eta aizkora ikuskizuna izango da eta gauean, dantzaldia.

Irailaren 26an azkenik, 10:00etan goizeresia izango da eta 11:00etan hasita, Extremadurako produktuen azoka izango da. 12:30ean eta 18:00etan, Extremadurako dantzen ikuskizuna izango da.

● Laskaibarren jaia

Irailaren 26an ospatuko dute Laskaibar auzoko eguna. 13:00etan Meza izango dute Loinazko San Martin plazan eta ondoren, bazkaria Olaberriako Arrieta jatetxean. Arratsaldean, txistulariak eta dantzariak izango dira.

● 'Cohiba Tropical' ikuskizuna

Ezkiaga Auzo Elkartek antolatutako, 'Cohiba Tropical' ikuskizuna izango da Ezkiagako pilotalekuan. Caribeko doinuez gain, edari tropikalak dastagai izango dira.

Igartza Jauregiko dokumentazioa berreskuratu da

Igartzako monumentu multzoaren dokumentu historikoen inbentarioa, aurkeztu zen udaletxean, uztailaren 15ean. Arantxa Aseginolaza Kultur zinegotzia, Juantxo Agirre Aranzadi Elkarteko ordezkaria eta inbentarioa egin duen Celes Goitia izan ziren aurkezpenean.

Inbentarioak 50 orri ditu, eta dokumentu idatziak eta orain artean sakabanaturik eta desagertzeko arriskuan zeuden argazki ezezagunak biltzen dira bertan, era ordenatuan. 163 dokumentu daude guztira: notario-eskriturak, planoak, eskutitzak, kontuak, argazki zaharrak... bildu ditu Celes Goitiak. Hiru mendeetako dokumentazioa da.

Beasaingo Udal Artxiboan gordeko da dokumentazioa eta Beasainen historia eza-gutzeko erreferentzia baliagarria izango da, Arantxa Aseginolaza zinegotziak adierazi zuenez.



Aranzadiko Juantxo Agirreren arabera, "joan zen urtearen amaieran Aranzadiko ikerketa taldea, Auzolandegiak bukatutakoa, era guztietako paper piloarekin aurkitu ginen. Urteetan hondakindegietatik eta zaborretatik berreskuratu eta gorde egin ziren egunen batean ordenatzeko. Dokumentu batzuk Igartzako erroto Irizar familiak utzi dizkigu. Kultura Batzordeari dokumentuen berri eman eta berehala jarri zizkigun bitartekoak eta Celes Goitia izan da lau hilabeteetan zehar dokumentazioak ordenatzeko arduratu dena".

Txanoberritsu

Udaleko Euskara Batzordeak eta Naturalki enpresak antolatuta, 5 urtetik gorako haurrentzat (B ereduak dabilzanak batez ere), euskarazko Txanoberritsu ekitaldia hasiko da urriaren 9an. Larunbat goizetan (9:30etik 12:30era) edo arratsaldetan (3:30etik 6:30era) 3 orduz izaten da Txanoberritsu. Izenak emateko epea irailaren 20tik 30era artekoa da. Izenak emateko, 5.700 pezeta sartu behar dira Euskaradiko Kutzako 3035 0017 18 0170046545 kontuan eta ordainagiria betetako fitxarekin batera Udaletxeko Euskaraz Zerbitzura eramane behar da.

Kronistaren beharrean

Beasaingo kronika idatziko duen kronistaren bila gabila.

tza. Interesatuok deitu 943-889612 telefonora.



Zilarrezko ezteiak

Beasainen bizi diren Ezkio-Itsasoko Iñaki Iraetak eta Gabiriako Urrategi Egigurenek zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte irailaren 21ean. Iñaki, Amaia, Aitor, Amaia eta Jonen partetik zorionak eta baita kafea hartzen elkarrekin egoten direnen partetik ere.

IKER PEREZ ORDIZIA K.E.ko IGERIKETA TALDEKO ENTRENATZAILEA: "Helburua gazteak igeriketara gerturatu eta beraiekin ondo lan egitea dugu"

Ordizia Kirol Elkarteko Igeriketa Saileko egoeraren berri izateko Iker Perezengana jo dugu. Bera da igerilari nagusien entrenatzailea eta txikienena, berriz, Joakin Elkorro. Garaipen handiak lortutako taldea izanik, azken urteetan maila apalagoan dabilta ordiziarrek. Entrenatzaile lanaz gain berriro lehiaketara itzuli den Ikerrek gazteak igeriketan hastera animatu nahi ditu.

- Nola joan zen azken denboraldia?

- Neguan denboraldi ona egin genuen. Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketetan oso emaitza onak lortu ziren. Euskadiko absolutoetan bi errekor hobetu genituen errelebotan. Iñaki Lekuona beasaindarrek Espainiako txapelketarako gutxieneko marka egin zuen. Hori ez zen azken 8-10 urteetan gertatu eta oso garrantzitsua da guretzat. Iñaki Ginea neguko Euskadiko Txapelketetan bi urrezko domina eta zilarrezko bat atera zituen. Mikel Kerejetak ere urrezko bat lortu zuen.

Iñaki Ginea, Mikel Kerejeta eta Iker Perez Euskadiko selekzioarekin Espainiako Autonomi Txapelketara joateko aukeratuak izan ziren. Hori ere azken urteetan ez zen lortu.

- Beraz azken aldiko denboraldirik onena izan zen.

- Garai batean Ordiziako zen Gipuzkoako talderik indartsuena, ia urtero irabazten



"Dagoen gauza ona da talde bat sortzen dela eta bertan oso giro ona izaten dela", dio Ikerrek.

genuen taldekako sailkapena. Baina azken 10 urteetan maila galtzen joan gara. Orain gora-behera batzuk izaten ditugu baina nahiko zuloan sartuta gaude.

- Behetik jarraipenik ikusten al da?

- Kirol eskolarrean eta ikastaroetan haurrak ikasteko asmoz apuntatzen dira igeriketarako, baina, gero ez dute jarraitzen. Umerik, oinarriak ez badago ezin da aurrera jarraitu eta hori lan asko dugu egiteko. Umeak taldean sartzeraz bultzatu eta behin sartuz gero mantedu beharra dugu. Ilusio handiarekin sartzen dira baina egunero entrenatzea gogorra egiten zaie.

- Hori al da zuen arazo nagusia?

- Normalean igeriketan 18-20 urterekin utzi egiten da eta guk adin horretako igerilari asko ditugu. Horiek uzten dutenean atzetik ez dago jenderik. Beraz hori dugu hurrengo urteetarako helburua gazteak igeriketara gerturatu eta beraiekin ondo lan egitea gora ondo iristeko.

Emaitza onak lortu eta motibatuz gero 20-22 urterarte jarraitu dezakete, bestela 17-18rekin utzi egiten dute.

Entrenamenduak egunero, giro ederrean

Igerilariak ez dute kategorika entrenatzen. 3 ordutegietako 4 taldeetan daude banaturik. 5etatik 6etara, 6etatik 7etara, 7etatik 8etara eta 7etatik 9etara. Lehenengo orduan txikiak entrenatzen dute, gero koxkortu xakeak eta 7etatik aurrera nagusiak hauetan 2 ordu entrenatzen dutenak maila handienekoak dira. Adibidez 7etatik 8etarako entrenamendu horretan badaude absolutoak ordu bete bakarrik entrenatzen dutenak, horrekin nahikoa dutelako. Ordizian kale bakar batean entrenatzen dute, "horrek asko mugatzen ditu entrenamenduak. 14 pertsona kale batean sartuta ezin da ondo entrenatu", dio Ikerrek.

Txikiak ez dira lehiatzen. Alebin, infantil, kadete, jubenil eta seniorrak parte hartzen dute lehiaketetan. Txikiak egunero ez dute entrenatzen, baina nagusiak egunero-egunero izaten dute entrenamendua. "Igeriketan egunero dago entrenatu beharra, ez da beste kirol batzuetan bezala nahikoa izaten asteen 3 entrenamendu egitea. Egutegia aritu ezean nabari izaten da. Guk egunero sesio bakarra egiten dugu, baina talde askotan goizean edo eguerdian beste sesio bat egiten dute", azaldu digu entrenatzaileak.

Kirol gogorra da igeriketa, batez ere jarraipen handia behar delako eta azkenerako jende asko erre egiten da. "Dagoen gauza ona da talde bat sortzen dela eta bertan oso giro ona izaten dela. Honek asko laguntzen du entrenamenduen gogortasun arintzen. Kirol oso indibiduala da, uretan sartutakoan bakarrik, aislatuta aritzen zara. Baina egunero elkarrekin egonik oso giro ona sortzen da. Horregatik etortzen da jendea igerilekura, dena esfortzua eta entrenatzea bazen ez ziren etorriko", gehitu du Ikerrek.



1974 eta 1975. urteetan jaiotako itsasondorrak

1983ko otsailean, ihauterietan, Itsasondon ateratakoa da argazkia.

Goiko lerroan, ezkerretik eskubira: Ezezaguna, Yolanda San Sebastian, Mila Izuzkiza, Mikel Solis, Andereño Maite, Iñaki Telleria, Ibon Argaz, Unai Agirre eta Igor Rezola.

Makurtuta: Maider Olazabal, Larraitx Iturrioz, Aniz Mendizabal, Josune Lasa, Jose Migel Arbilla, Ainhoa Garmendia eta Aitor Arrospide.

ILEAPAINDEGI MISTOA

- ✓ **Solarium** 4.500 pta.
10 saioko bonoa
- ✓ **Depilazioa**
- ✓ **Kolore eta permanenteak**,
astelehen, astearte eta
asteazkenetan %5eko
deskontuaz

Rekartealde, 30 ☎ 943 88 34 86 BEASAIN

Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

✓ **Aholkularitza juridikoa**
✓ **Entrepresa zerbitzuak**
✓ **Aseguruak**

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

IÑAUTI
KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA

PELUQUERÍA
Pascual

ILEAPAINDEGI MIXTOA

Nafarroa Etorbidea, 17
☎ 943 882 248 BEASAIN

VOLVO
TOYOTA
ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



DEITU

TELECOMUNICACIONES

✗ TELEFONIA
MUGIKORRA

✗ TELEFONIA FINKOA

✗ INTERNET

✗ NGL-2001
ORDENAGAILUAK

✗ FAXA

✗ MUGIKORRENTZAT OSAGARRIAK

✗ ETA ABAR...



Komunikazioa



mundu osoarekin



www.airtel.net



BONARDI
BILDUMA

Aukera zabala.
35 modelo baino
gehiago aukeratzeko.

Bakarrik

3.400 Pta.



LENTE
PROGRESIBOAK

Berehalako enfokoa eta ikuspen hobezina
distantzia guztietan. Moldaketa
garantizatuarekin

19.500 Pta.

-tik aurrera



Multiofertak
MULTIOPTICAS

60 URTE

-TIK AURRERA

Gaztetzen duten modeloekin kontu ezazu

8.700* Pta.

Montura
+ Kristalak

-tik aurrera



BETAURREKOAK

UMEENTZAKO

8.900* Pta. -tik aurrera

Montura + Kristalak



Indartutako montura eta ziri biurkorrak

MULTIOPTICAS

* + 4 ESE + 2 OK leku zurizkoak ezartzen.

EGUZKITARAKO
BETAURREKOTAN

DENBORALDIAREN
BUKAERAGATIK

30%



bolle

OXYDO

Stylizer




Ray-Ban

achette

EASSUN


**BESTE MARKA BATZUETAZ INFORMA
ZAITEZ**



MULTIOPTICAS
LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - **BERGARA**
J. Carlos Guerra, 1 - **ARRASATE**
J. M. Barandiaran Enp - **ORDIZIA**

UDA AMAITU DA... BAINA EZ GURETZAT



**ANTZIZAR
KIROLDEGIA**



KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA
Instituto municipal del deporte

EASAIN



BEASAINGO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gobierno y Foru Departamentua
Departamento de Juventud y Deporte

ANTZIZAR KIROLDEGIA BARNEKO KIROLAK